

DATORRENA

Konstituzioa aldatu ezean, lehengo
lepotik burua MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3

BIZIPOZA: Euskal Herriko
elkarteen plazak dokumentala josi
du, ikusezinak bistaratzeko > 22

2019ko azaroaren 23a | XIII. urtea • 647. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



FOKUA, ERASOTZAILEEN GAINEAN > 12

**Zientzia ekonomikoa
desmitifikatzeko garaia** 04

**Evo Moralesen kontrako gurutzada
abian** 07

**David Cameron, «saihetsezinaren»
zama daraman gizona** 08

**Sexu erasoen fokua
erasotzailearen gainean jartzen
duen gida** 12

**Norbanakoaren eskubidea,
gehiagorena** 15

**Elkarrizketa: Leire Elizegi eta
Amaia Irazusta** 22

In fraganti: Eider Perez 27

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
Konstituzioa aldatu ezean,
lehengo lepotik burua
- 10 **Ander Gortazar Balerdi:**
Mapak (III) eta datuak
- 11 **Mikel Zubimendi:** Ez txeke
zuririk, ez mutur luzerik
- 16 **Alai Zubimendi**
- 17 **Xabier Mikel Errekondo:**
Iruñeko udal frankistaren
pailazokeria
- 17 **Maidier Iantzi Goienetxe:**
Zuretzat mailua, ergela!
- 20 **Gorka Zozia:** Malkoak euritan
bezala
- 21 **Iker Barandiaran:** Belarria
prest
- 30 **Garazi Goia:** Dena eta ezer ez



{ datorrena } Maite Ubiria Beaumont

Konstituzioa aldatu ezean, lehengo lepotik burua

A ljeriako gatazkaren testuinguruan aldarrikatutako Konstituzioa indarrean dago, oraindik ere, Frantzian. Deskolonizazioari soilik ez, gizarte krisiari erantzuna eman nahian sortu zen 1958. urtean onartutako testua. Geroztik moldaketak izan badira ere, muinari ez zaio sakoneko aldaketarik egin. Eliseora heldu aitzin, Emmanuel Macronek presidente erreformatzailearen ikurra altxatu zuen. Estatuaren egitura modernizatzeko agindua eman zuen. Baita «diferentziazio eskubidea» Konstituzioan txertatzeko engaiamendua hartu ere. Behin bere agintaldiaren ekuatorera iritsita, baina, Konstituzioa aldatzeko egitasmoa ministro kontseilutik harago ez da joan. Esaterako, korsikar afera ez atzera ez aurrera dago, bai Korsika bera bai bertako hizkuntza aitortzeko oztopo nagusia, lehen bezala gaur ere, Konstituzioa delako. Edo hobe esanda, testu hori aldatzeko borondate eskasa.

Hala eta guztiz ere, ukaezina da uniformizazioaren eskema krisian dela egun Estatu frantsesean, baita Parisek gero eta zailtasun gehiago dituela urteen poderioz, tirriki-tarraka, ontzat eman duen deszentralizazio mugatua kudeatzeko. Bada, hila-ren 30ean, Parisen, gutxitutako hizkuntzen aldeko mobilizazioak egoera hori plazaratuko du. Izan ere, Estatuak ezarritako oztopoei aurre eginez, Britainian, Korsikan, Alsazian, Euskal Herrian... tokian tokiko hizkuntzen garapenaren aldeko legitimazio zabala eratu da, betiere, gizarte eragileen bultzadapean eta frantses legearen zirrikituak baliatuz, legearen mugak bihurtuz.

Ezker-eskuin, lurraldeotako erakunde eta hautetsi gehienek hizkuntz aniztasunaren aldeko ibilbide horrekin bat egin dute. Hartara, ordezkariok konturatu dira frantses lege markoak finkatzen duen joko eremuaren estutasuna ez dela «abertzale sutsu gutxi batzuen asmakizuna», baizik eta errealitate gordina. Gauzak horrela, frantses Errepublika babesteko hautatu zituzten orde-

kari hainbat, gizartearen egitasmo apalenak ere praktikara eramateko zailtasunez jabetu eta *statu quo* errepublikazaleari kontuak eskatzen hasi dira. Zirt edo zart egiteko unea heldu dela sentitzen dute.

Horrela jarri zuten agerian, esaterako, Euskal Elkargoak dagoeneko bere baitan sumatu dituen hutsune eta gabeziak gainditzeko xedez teilatua gorantz eramatea aukera hobe eta bakarra dela sinetsita dauden erreferentzia handiko hainbat euskal hautetsik. Esanguratsua bada Max Brisson senatari eskuindarraren ahotik entzutea hamar herri elkargoak batuta sortu zen egitura ez dela tresnarik egokiena, «Estatuak gure esku ezarri zuen tresna bakarra baizik». Frantziako Lurralde Kohesiorako ministro Jacqueline Gourault, Izpuran berriki eginiko bilkura kari, Iparraldeko erakundearen eskuduntzak

Lege aldaketa baten bidez «diferentziazio eskubidea» bermatu ahal dela esan eta berehala, Euskal Elkargoak hezkuntzaren eskuduntza hartzeko asmoa errefusatu du Jacqueline Gourault ministroak

zabaltzearen alde azaldu zen. Konstituzioa aldatzeko bidea malkartsua izanik, ondoko hilabeteetan egikaritu beharko liratekeen deszentralizazio/deskontzentrazio lege egitasmo berriak iragarri zituen. Ministroaren esanetan, lege aldaketa soil baten bidez, «diferentziazio eskubidea» aitortzeko atea zabalduko litzateke. Eskuduntzen partekatze prozesua mugikortasun ereduaren, trantsizio ekologikoaren eta etxebizitzaren alorretatik hastea proposatu zuen, «beste ekarpenak entzuteko prest» agertu bazen ere. Alta, Brissonnek mugaz gaindiko harremanak eta hezkuntza Iparraldetik kudeatzeko aukera aditzera eman eta berehala, «hezkuntza deszentralizatzeko asmorik ez» dela argitu zuen Parisko ordezkariak. Lehengo lepotik burua. •

GOIAN BEGO «HOMO ECONOMICUS»-A

Hondatutako tresnekin bete den txabola hutsala bilakatu da zientzia ekonomikoa

A spaldi, XIX. mendean, John Stuart Mill ekonomistak eman zigun aurreneko *Homo economicus*-aren berri. Eta bereziki XX. mendetik hona, *Homo economicus* horrek inbaditu egin du akademia. Negozioen munduko ikasketak egiten dituzten gazteak bere irudi eta antzera prestatzen dira botere postuetarako.

Laburki, bere ezaugarriak honakoak dira: estimulu ekonomikoen aurrean portaera arrazionala du, informazioa modu egokian prozesatzeko gai da eta behar bezala jokatzeko du beti, onurak maximizatuz, ahalegin txikienarekin irabazi handienak lortu asmoz. *Homo economicus*-a unibertsala eta intenporala omen da. Atzo, gaur eta biharkoa, planetaren edozein tokikoa, edozein sistema politikoren mendekoa. Errealitatearen informazio perfektua du, interes pertsonalak gidatuta, aukerak arrazionalki kalkulatu eta aztertzen ditu oparotasun propioa eskuratzeko.

Interes soziala interes pertsonalen batuketaren emaitza bada, oparotasun indibidualen batuketa da gizartearen oparotasuna. Bada, *Homo economicus*-arentzat ez dago interes komunik, ezta planetaren interesik ere. Ez dago emozio, maitasun, justizia, esker onik, ez bederen norberari interesatzen ez bazaio.

Beste hitz batzuekin esanda, *Homo economicus*-ak garela diotenentzat, ez dago gizakia berez berekoia eta zekena den onarpenetik abiatzen ez den zientzia sozialik. Eta, jakina, premisa lunatikoek konklusio errotara eramaten gaituzte ezinbestean. Bereziki ikusgarria eta

 **EKONOMIA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Zientzia ekonomikoa zientzia sozialen artean gorena, intelektualki hegemonikoa, mundua ulertzeko betaurreko onenen jabea zela uste zen. Baina krisiak aurreikusteko bere ezinak zalantzan jarri du guztia. Beste mende bateko arazoak konpontzeko diseinatua, desmitifikatu egin behar da, bere onarpen absurdoen atzaparretatik aska gaitzen.

mingarria da hori zientzia ekonomikoen kasuan.

Zientzia ekonomikoa zientzia sozial bat da eta zientzia sozial guztiek zapaltzen duten lurra mugimenduan dago analisten

Zezen ikonikoa eta neskak beldurgabea aurrez aurre, kapitalismoaren basakeria eta barrunbeak ordezkatzeko dituen Wall Street kale entzutetsuan. AFP

oien azpian. Zientzia sozialen objektua beti delako ezegonkorra, fisika bezalako gainontzeko zientzia “gogorretan” ez bezala, zientzia sozialetako subjektuek pentsatu egiten dutelako.

Egun zientzia ekonomikoa ez da irakasten beste zientzia sozialak bezala, argudioen istorio bat bezala. Fisikaren antza duen diziplina bat bezala irakasten da, unibertsal eta ukaezinak diren egia matematikoen pixkanakako gauzape bat bezala. Ez dakit edo dotore-dotore jantzi-tako eredu matematikoak egiarekin nahastu izanagatik den, edo matematikaren dotorezia hori fetitxe kutun egin izanagatik, edo merkatuak perfektuki funtzionatzeko duen onarpenari suposatzen zaien zehaztasunarekin maitemindu izanagatik, baina hor azpian bada uste bat: ekonomia zientziak egungo



mundua ikusi eta ulertzeko denetan betaurreko hobere-
nak eskaintzen ditu.

Errealitateak, baina, ezer gutxi du ikusteko eredu mate-
matikoekin. Ekuazio batzuk baino askoz konplexuagoa da. Izan ere, ekonomian ez bezala, beste zientzia sozialetan, oro har, ulertzen da onarpen teori-
koek ez dutela sekula errealita-
tea islatzen, alegia, sinplifika-
zioaren mesedetan egiten diren abstrakzioak direla.

Zientzia ekonomikoak oso barneratua du bizitza antola-
tzeko orduan merkatua baino beste bide hoberik ez den ideia. Ekonomista askok, beren diziplinak munduaren argazki konplexu eta osoago bat ematen duela adieraziko digute. Oreak perfektu baten ipuin hegemonikoa kontatu-
ko digute, merkatuak perfek-
tuak direla lehia perfektua denean, denak denez jakingo duten mundu batean sinistea eskatuko digute, nahi beste konpainia ei dauden mundu batean, negozioak egiteko oz-
toporik gabeko munduan.

HEGEMONIA INTELEKTUALA

XX. mendearen zati handi ba-
tean, bereziki Bigarren Mundu Gerraren osteko hamarkade-
tan, ekonomiak hegemonia in-
tektuala lortu zuen. Beste zientzia sozial guztien artean punta-puntakoena bilakatu zen. Agenda politiko gehienak dominatzen zituen.

Hizkera eta pentsamendu propioa eraikita, negozioen munduan, gobernuen artean, gizarteko hainbat alorretan, ekonomiaren irakaspenek era-
bilgarrienak eta eraginkorre-
nak ziruditen. Politika asko ekonomiaren irakaspenen ma-
miek gidatzen zituzten. Gai-
nera, zientzia sozialen artean aurreikusteko, etorkizuna ira-

gartzeko ahalmena zuen baka-
rra omen zen.

Hegemonia hori, baina, ko-
lokan dago gaur egun. Bereziki duela hamar urteko krisiare-
kin, higiezin burbuilarekin eta finantza munduko krak erraldoiarekin, gauzak alda-
tzen hasi ziren zientzia ekono-
mikoarentzat. Entsegu batean irakurri nion Paul Krugman ekonomista eta Nobel saridu-
nari ekonomista oso gutxik ikusi zutela krisiaren etorrera, baina porrot guztietan txikie-
na izan zela aurreikuspen edo iragarpen mailan egindakoa. Askoz ere inportanteagoa izan zela ofizioaren, lanbidearen itsukeria merkatu ekonomian horrelako porrot katastrofiko emateko aukera kontuan ez izaterakoan.

Egia da egungo ekonomista handi eta ospetsuak ez direla bereziki fin ibili finantza krisi latzak aurreikusten, oparota-
sun orokorra errazten edota klima larrialdia prebenitzeko ereduak sortzen. Baina egia ere bada intelektual gisa alda-
rean kokatzerako orduan, au-
toritate handiko pertsonaia

Karl Marxen jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatzeko Trier bere sorterrian atera zuten o euroko billetea.
Trier Tourismus und Marketing



bezala aurkezterakoan, beren arrakastak ez duela parekorik. Tankera horretako autoritate-
ak bakarrik erlijioaren histo-
rian ezagutu direla.

Azken urteotan, baina, mundu errealetik kontzep-
tualki aldendu eta krisiak usaintzeko erakutsitako era-
bateko ezin ekonomisteki-
ko mesfidantza ikaragarri he-
datu du. Eta galderak mahai gaine-
an daude jada: ekono-
miaren diziplina zientifikoa arazo serio baten aurrean al dago? Inoiz izan badute, ekono-
mistek galdu al dute gizar-
teari ekarpen erabilgarri eta positiboak egiteko ahalmena? Egindako akatsetatik ikasteko umiltasunik erakusten al dute

ekonomialariek? Ekonomiak eta ekonomistek oraindik ere eztabaida politiko eta publi-
koan eragin handia dute, bai-
na, horrela izan behar al du?

SUHILTZAILE TRAKETS

Uste gero eta hedatuagoa da ekonomia handiak kudeatzeko ardura dutenen artean, zien-
tzia ekonomikoak ez duela egun helburuak lortzeko balio, jada existitzen ez diren arazo-
ak konpontzeko zientzia baten itxura hartzen ari delako. Hau da, diziplina bezala beste men-
de batekoak diren arazoak konpontzeko diseinaturik da-
goen ideia nagusitzen ari da.

Ekonomistentzat minga-
rriak suerta daitezkeen analo-
giak ere irakurtzen dira. Suhil-
tzaile kuadrilla traketsa direla esaterako. Eta ekonomistek salbatu behar bagaituzte, gure esperantza bakar-
ra etxean su-
terik ez izatea dela. Izan ere, ekonomian, "suteak" (burbui-
lak, desorekak...) ohikoak, saihetsezinak dira. Hori ikusi-
ta, porrot egiten dutenean, ekonomialariei ez al zaie ino-
lako ardurarik eskatu behar?

Zientzia ekonomikoa ez da beste zientzia sozialak bezala irakasten, mundua ikusi eta ulertzeko betaurreko onenak eskaintzen dituen egia matematiko ukaezina balitz bezala baizik

Ekonomista handiak ez dira fin ibili krisiak aurreikusten, oparotasun orokorra errazten. Aldiz, autoritate handiko arrakalarik gabeko pertsonaia bezala aurkezten zaizkigu oraindik


Langile bat bere lana ongi betetzen ez duenean kanporatzen duten bezala, ekonomistek, hondamendira daramaten politikak preskribatzen dituztenean, milioika jende pobrezia bidaliz, ez al dute prezio bat ordaindu behar? Eta ez, ez da mendeku gosea. Zergatik saritzen dira ekonomialariok soldata handi eta karrera profesional txukunekin?

Agian arazoa ez da gertatuko dena aurreikustea, hori ez delako zientzia ekonomikoaren baliotasun zientifikoaren froga. Agian arazoa ez da ekonomia ulertzeko tresnen falta. Ekonomisten jokaera eta pizgarrien egitura da gakoa agian. Agintariak ez desafiatzeko, beharrezkoa ez den konplexutasuna ematen diotelako beren lanei. Eta, ondorioz, erabilera gutxiko diziplina bat sortzen ari delako, boterea zilegi bilatzeko soilik erabiltzen dena.

GALDERA HERETIKOEN BEHARRA

Jakina badaudela ekarpen eta ikuspegi oso interesanteak, zientzia ekonomikoaren teoria heterodoxoak (marxista, austriarra, postkeynesiarra, feminista...), berdintasunaz, jasangarritasunaz, ongizateaz edo giza garapenaz jarduten direnak. Baina egia ere bada korronteon adierazleak “serioztat” jotako unibertsitateko departamentuetatik eta tribuna publikoetatik at daudela.

Zientzia ekonomiko moderno zenbait usteren gainean eraiki da eta ezinbestekoa da horiek deseraikitzea. Galdera heretikoak behar dira, barra-barra: hain argia eta azkarra al da prezioen mekanismoa? Produktibitatea handitzea beti al da ona? Hazkundera beti da gehiago? Erabaki hobeak hartzea eta aurrerabide erreala imajinatzea zaila da diziplina



desmitifikatu eta bere irakaspen, onarpen absurdo eta matematika abstraktuen mendekotasunaren atzaparretatik askatzeke. Norabide horretan ezinbesteko lana utzi digu Robert Skidelsky baroi eta

Globalizazioa zentzuz kudeatzea, inteligentzia artifizialaren aroan langile klasea osasuntsu mantentzea, planeta kolapso klimatikotik salbatzea... horra hori zientzia ekonomikoaren erronka nagusietako batzuk. GAUR8

Erabaki hobeak hartzea eta aurrerabide erreala imajinatzea zaila da diziplina desmitifikatzeke, onarpen absurdo eta matematika abstraktuen mendekotasunaren atzaparretatik askatzeke

Zientzia ekonomikoak komunikabideengan duen kontrol ia teologikoarekin bukatzea, giza motibazio eta aukeren horizonteen gaineko bere definizioekin apurtzea, nahitaezkoa da

rak aurkituko omen du «langabezia naturalaren tasa», eta, inbertsoreak, prezioen seinale argioi probetxua ateraz, gai izango dira hazkunde osasuntsu bat bermatzeko.

Skidelsky zalantzan jarri du ere epe motzeko *shock* ekonomikoak merkatuaren autoerregulazio ahalmenak askatu eta epe luzeko onurak dakarren ustea. Eta, beraz, gobernuek merkatuek beren oreka naturala aurkitzeko bidea libre utzi behar dutela.

BERE ATZAPARRETATIK ASKATU

Zenbat buru, hainbat aburu. Egongo dira zientzia ekonomikoak “zigorra” merezi ez duela uste dutenak, errugabe dela, eta, errurik badu, oraindik konpon daitekeela, autozuzenketarako indarra duelako.

Zientzia ekonomikoa diziplina garrantzitsua da eta izaten jarraituko du. Mundua ulertzeko dugun tresna inportanteenetako bat. Erronkak itzelak dira: globalizazioaren kudeaketa, inteligentzia artifizialaren aroan langile klasea osasuntsu mantentzea, planeta kolapso klimatikotik salbatzea... Azterketa ekonomikotik ere etorriko da konponbidea.

Intelektualki ez da erraza izango, eta, politikoki, are zailagoa izango da. Beharko dira krisi berriak, agian 2008koa baino are latzagoak. Beharko dira aldaketa politiko erradikalak, agian gazteen matxina da global bat. Baina nahitaezkoa, hil ala bizikoa, izango da instituzio publikoak zientzia ekonomiko neoklasikoaren atzaparretatik askatzea, komunikabideen gainean duen kontrol ia teologikoarekin bukatzea, gizakion motibazio eta aukeren horizonteen gainean egiten dituen definizioekin behingoz apurtzea.

ekonomiaren historialari britainiarrak: “Money and Government: The Past and Future of Economics”.

Ekonomisten hainbat obsesio zalantzan jartzen dira bertan, inflazioarena adibidez. Ekonomia fakultateetan oraindik ere erakusten da gobernuaren lehen betebeharra –askorentzat berezko betebeharrak – prezioen egonkortasuna bermatzea dela. Gobernuentzat dirua inprimatze hutsa berezko bekatua dela. Inflazioa urruti mantentzen bada, gobernu eta banku zentralen ekintza koordinatuekin merkatuak be-



Ronaldo SCHEMIDT | AFP



IKUSMIRA

EVO MORALESSEN KONTRAKO GURUTZADA ABIAN

Jeanine Añezek Gobernuak Nazioarteko Justizia Auzitegian Evo Moralesen kontra bi salaketa jarriko dituela iragarri du, bata gizateriaren kontrako krimenengatik, eta, bestea, sedizioagatik, «terrorismoagatik» eta altxamendu armatuarengatik. Estatu kolpea eman ondoren bere burua presidente izendatu duen Jeanine Añezek Moralesi ohartarazi zion Boliviara itzultzekotan, atxilotua izateko arriskua zuela. Orain, Arturo Murillo Gobernu kolpistako ministroak beste pauso bat eman du, eta Morales auzitegiara eramango duela esan du. «Jada ez da presidentea. Bere kontrako prozedura arrunta izango da, ez du tratamendu berezirik izango. Gogor egingo diogu», esan du. Eta «datorren astean edo hamar egun barru Nazioarteko Justizia Auzitegira joko dugu, hirien sitioa agintzeagatik», gaineratu du. Kalean Moralesen jarraitzaileen kontrako errepresioak ez du etenik. Hogei pertsonatik gora hil dituzte jada. El Altoko Senkata hidrokarburo instalazioan zortzi herritar hil zituzten militarrek. Gorpuak suzko armek eragindako zauriak zituzten. Ainar Lertxundi

{ profila }

DAVID CAMERON

«Saihetsezinaren» zama daraman gizona

Badira historia liburuetan leku propio bat izatea irabazi duten izenak; horietako bat da David Cameron Britainia Handiko lehen ministro ohiarena. Izan ere, bere figura ageri da Europak azken urteotan bizi izan duen lurrikara handienaren atzean. Brexitaz ari gara. Britainia Handia Europar Batasunetik ateratzea eragin zuen fenomenoak betierekotasuna eman dio; hala ere, izan dira politikari londrestarraren ibilbidearen baitan etorkizunean gogoratuak izango diren beste hainbat pasarte ere.

Guztiak jaso ditu Cameronek lehen pertsonan argitaratu duen autobiografia; “For the record”, hots, esandakoak jasota gera daitezela. Asko zuen esateko, argitzeko politikari kontserbadoreak, 2016ko ekainaren 23ko erreferendumaz geroztik, behin bere dimisioa aurkeztuta, ahoa ireki gabe baitzen. Hala, lehen ministro ohiaren ibilbidearen zein politika britainiarraren erretratu argigarria egiten du lanak: arerio zein adiskideak goraiatzeko, baita egurtu ere; garai-penak ospatzen ditu, eta penak kontatu.

ELITISMOA ETA WESTMINSTER

Eton eta Oxford. Britainiar elitearen ikur bi. Biak zapaldu zituen Cameronek. Klasismoa darie Britainia Handiari eta bertako hezkuntza sistemari, eta horren pertsonifikazioa da Cameron. Oxforden ezagutu zuen, esaterako, alderdikide eta arerio duen Boris Johnsonekin. “Thatcherista” porrokatua, antikomunista eta liberala, John Majorren Gobernuaren aterkipean egin zituen lehen urratsak politikan. Hura izango zen kontserbadoreen azken gobernua Tony Blairren “Laborismo Berria” baino lehen.

“Thatcherista” izanik, “Blairista” ere bada Cameron. «Tony Blair da herentzian utzi dudana ondare politiko garrantzitsuena», esan omen zuen behinola “Burdinazko Damak”, eta hori berretsi baino ez dute egiten Cameronen memoriak. Gertuago zituen (eta ditu) Blair eta honen politikak bere alderdiaren eta ki-



David Cameron Europak azken urteotan izan duen lurrikara handienagatik, Brexitagatik, gogoratua izango da.
Daniel LEAL-OLIVAS | AFP

deen jarduna baino. Porrota porrotaren atzetik ezagutu zuen Alderdi Kontserbadoreak 1997tik 2010era bitarteko urteetan, Cameronek berak Westminsterren zapi gorria kendu eta urdina jarri arte.


Kontserbadoreen baitan progresisten zakukoa, 2005eko abenduan alderdia berritzea zuen helburu bertako lidergoa lehiaztera aurkeztu zenean. Inguruan zituena gerora aliatu onena izango zuen George Osborne, eta hainbat buruhauste eragingo zizkieten Boris Johnson eta Michael Gove. 2010eko maiatzean hartuko zuen herrialdearen gidaritzatza.

GERRA BETI

Liberal-demokratekin koalizioan osatu zuen Cameronek bere Gobernuko lehen legegintzaldia, gerora arrakastatsua suertatuko zen legegintzaldi bakarra. Murrizketetan oinarritutako urteak izan ziren, eta orduan erein zituen bere porrot politikoa eragingo zuten haziak. Orogen gainetik, baina, alor ekonomikoan egindako lanak eragiten dio harrota-

sunik handiena. Krisi ekonomikoaren biharamuneko urteak izaki, “guraizeak” atera zituen plazara Cameronen Gobernuak. Murrizketak murrizketa, eta hauek britainiar gizartearen baitan eragindako inpaktua inpaktu, zenbakiak koadratzea izan zen, lerro artean irakur daitekeenez, Cameronen ibilbide politikoko arrakasta handiena.

Bere legegintzaldian egin zuen eztanda Udaberri Arabiarrak ere. Interbentzionista hutsa, Irakeko gerraren alde boza emana zuen Cameronek, Britainia Handiak AEBekin zuen “harreman bereziari” men eginez. Ekialde Hurbileko gatazkek markatu zuten bere agintaldia herrialdearen atzerri politikari dagokionez. Batez ere, baina, hiru herrialdek kendu zitoten loa: Afganistan, Siria eta Irak. Talibanen aurkako gudan, AEBei leialtasuna erakutsi asmoz, hauen ondoan lerrokatu zen, adiskide zuen Obamaren itzalean arituz. Ondoren etorri ziren Tunisia, Egipto, Libia eta abarretako erreboltak. Horietan guztietan ere in-



David Cameronek, Britainia Handiko lehen ministro ohiak, autobiografia bat kaleratu berri du.

AFP

IBILBIDEA Alderdi

Kontserbadoreko buru ohia (2005-2016), Britainia Handiko lehen ministro izatera iritsi zen 2010eko maiatzean. Sei urte egin zituen Downing Street kaleko 10. zenbakian, horietatik bost liberal-demokratekin koalizioan, harik eta Brexitaren erreferendumeko porrotaren ostean dimititu egin zuen arte. Aurrez, adostutako independentzia erreferenduma egitea ahalbidetu zuen Eskozian.

terbentzioaren alde agertu zen, Alderdi Laboristaren eta bere alderdiko gehien-goaren iritziaurrea.

Siriak eragingo zizkion, baina, bu-ruhauste handienak Cameroni. Demo-nioren pare zuen Baxar al-Assad, eta hu-ra boteretik kendu beste asmorik ez zuen, Siriako Armada Askearekin lerrokatuz horretarako. Harrigarriak dira, il-do horretan, Errusiako presidente Vladi-mir Putinekin izandako harremanak, zeinetan argi geratzen den politikari bri-tainiarrak jokaturako txotxongilo pape-ra. Westminsterera ere jo zuen Camero-nek Sirian interbenitzeko mandatu bila. Azkenean, ez Parlamentuaren mandatu-rik ez errusiarrekin estrategia adosturik ez Obamarekin «harreman berezirik».

Estatu Islamikoaren aurkako gerraz, bestalde, oroitzapen hobeak ditu Came-ronek; izan ere, Sirian esku hartu gabe geratu izanaren arantza ateratzea lortu zuen kalifa-herriaren aurkako gerrare-kin. Temati aritu zen, bere memorieta-tik ulertu daitekeenez, interbentzio mi-litarraren alde, harik eta Obama bere aldera erakartzea lortu zuen arte. Inter-bentzioa eta garaipen militarra, zerk eragin satisfazio handiago Cameroni?

BI IRABAZI, BAT GALDU

Barne politikan, ororen gaintetik, errefe-rendumek ezaugarritu zuten Camero-nen ibilbide politikoa. «Zilegi al da poli-

tikariek erreferendumak deitzea?», gal-detzen du liburuan. «Margaret Thatche-rreren ustez ez, nik beste iritzi bat daukat baina». Ez bat eta ez bi, hiru izan ziren Cameron boterean zen bitartean Britai-nia Handian egin ziren erreferendumak. Hauteskunde sistemaren ingurukoa le-hena, Eskoziako independentzia errefe-renduma bigarrena eta herrialdea Euro-par Batasunetik ateratzea erabaki zuena hirugarrena.

Holyroodeko Legebiltzarra ezartzea-ren aurka egin zuen bere garaian Al-derdi Kontserbadoreak, Eskozian ape-nas ordezkariarik zuenak. 2012ko urrian hitzartu zuten Cameron eta be-re homologo eskoziar Alex Salmondek Eskozian erreferenduma egitea. %35 in-guruan kokatzen zen garai hartan in-dependentzia-zaletasuna Eskozian; ga-raipen ziurra aurreikusten zuen Cameronek. Hori horrela, hainbat ba-tailatan amore ematea erabaki zuen, boto emaileen adina 16 urtera jaistean edota galdera Gobernu eskoziarraren esku uztean, esaterako. Aldiz, errefe-rendum goiztiarra nahi zuen, eta gal-dera soilik independentziaren inguru-koa izatea; ez zen transferentziak handitzeaz hitz egingo.

Jakina da hortik aurrerakoa. Beldurra-ren kanpaina egin zuen independen-tziaren aurkako Better Together mug-i-menduak –*Project Fear* bezala ezagutzen

dena–, Cameronek berak aitortzen due-nez. *Target*-a, argia: botoa erabaki gabe zutenak poltsikoarekin mehatxatzea, pentsiodunak ikaratzea, monetaren afe-ra mahai gainean jartzea... Bihotzarekin ezin irabazi eta beldurra zabaltzea izan zen Londresekin hartu zuen bidea. Horre-tarako, aurretik bere kargua okupatu zuen Gordon Brown laborista eskoziarra izan zuen lagun: «Kontua ez da eskoziar eta, aldi berean, britainiar sentitzeaz ha-rro egotea. Kontua da eskoziar askoren-tzat garrantzitsuagoa dela eskoziarra izatea britainiara izatea baino. Horren gaintetik, orde, erabakigarria dena da, sentitzen duzuna sentitzen duzula, Erre-suma Batuaren parte izaten jarraitu nahi izatea». 2014ko irailaren 18an egin zuten independentzia erreferenduma Eskozian; aurkako botoak irabazi zuen, boto emaileen %55aren babesarekin.

Bi erreferendum irabazi zituen Came-ronek lehen ministro zela, eta hiruga-rrenean egin zuen kale. Europa, Alderdi Kontserbadorearen baitan Satanas mo-duko hori. Eta Brusela, gaitz guztien ja-torri. Bai baina ez etengabea, ez barruan ez kanpoan. Euroeszeptikotzat du bere burua Cameronek, Britainia Handiak kontinentearekin izan duen harreman historikoaren ondorio. Britainia Handia Europar Batasunetik ateratzea erraztu zuen erreferenduma deitu izanaren za-ma berarekin eramango du, baina ez da

kontsulta hura deitu izanaz damutzen; lehenago edo geroago egin beharreko ariketatzat dauka Cameronek.

Euroeszeptiko izanagatik, baina, Euro-par Batasunean jarraitzearen aldekoa da Cameron: Europako herrien batasun ekonomikoa aldarrikatzen du, ez politi-koa; merkatu librea bai, baina ez pertso-nen mugimendu askatasuna. Horra bri-tainiar kontserbadore aurrerakoi (oximoron hutsa ez al da?) baten oinarri ideologikoa. Hala Londresen nola Bruse-lan kausaren aldeko aliatuak zituen Ca-meronek, baita etsaiak ere. Etxean, Os-borne beti leial; Johnson eta Gove, aldiz, arerio. Berezi zion beldurra Camero-nek Johnsoni; hura zen, Gobernu britai-niarrak zituen iritzi-txostenen arabera, balantza alde batera edo bestera dekan-tatzea lor zezakeen politikari bakarra. Bruselan, aldiz, lagun gutxi (bat aipatze-arren, Viktor Orban Hungariako lehen ministroa) eta etsai ugari, denen bu-ruan Donald Tusk eta Jean-Claude Junc-ker Europako Kontseiluko eta Europako Batzordeko presidenteak hurrenez hu-rren.

«Estrategia bat nuen Britainia Handia Europar Batasunaren baitan mantentze-ko. Hura garatu genuen, eta galdu egin genuen». 2016ko ekainaren 23an, britai-niarraren %52k Brexitaren alde bozkatu zuten. Ez damurik ez arrangurarik, «saihetsezinaren» betiko zama baino.



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Mapak (III) eta datuak

Marrarik ez, informazio-rik gabe». Ez zuen hain modu epikoan esan, baina modu horretara egin zuen burrunba nire buruan, Eusko Jaurlaritzaren iragarki famatu hura parafraseatuz bezala. UEUK eta Gislan-ek antolatutako "Geomatika eta Inteligentzia Espaziala 2019" jardunaldian gertatu zen, eta mapei buruz ari ginen. Mapak eta datuak.

Eraldaketa fase batean gaude. Arkitekturan, ordenagailuz lagundutako diseinuaren (CAD) heriotza motelaren lekuko ari gara izaten datuz beteriko 3D modeloen (BIM) mesedetan. Diseinu erremintak aldatzeak berezkoa du proiektatzeko moduaren aldaketa bat (ez dena *per se* txarra), baina trantsizio aroek badute beste ezaugarri zalantzarri bat: nork kontrolatzen du nor, erabiltzai-


leak teknologia ala teknologiak erabiltzailea? Sintomatikoa iruditzen zitzaidan Ibon Salaberria arkitektoa eta irakasleari irakurri niona: «Eskolako imajinazio lehorteari BIM sukarrak azken kolpea emango dio. Azken oasiak ere desagertuko dira efizientziaren eta efikaziaren izenean».

Geografiaren eta lurralde antolamenduaren arloan ere beste horrenbeste. Badirudi bereak egin duela delineatzailearen figurak, eta informazio espaziala edo geografiako prozesatu eta parametro ezberdinen arabera ustiatzeko gaitasunak ordezkatzeko duela pixkanaka. GIS teknologiak (Geografia Informazio Sistemak) ahalbideratzen du hori, eta haren erabileraren hamaika adibide ezagutzeko aukera izan genuen duela astebate Gasteizko Ingeniaritza Eskolan egin zen jardunaldian: Durangoko lur-erabileren

artifizializazioaren eboluzioaren azterketa, Tolosako uholde arriskuen analisi espaziala, Nafarroan EuroVelo bizikleta ibilbideak diseinatu eta garatzeko tresna edota GeoEuskadi bisorearen berrikuntzen aurkezpena, besteak beste.

Optimismo-txute bat da punta-puntako gaiak kalitatez eta euskaraz jorratu ahal izatea, baina Ibon Salaberriaren profetia zetorkidan burura behin eta berriz. Egia da: GIS tresnek errealitatea aztertzeko, irudikatze eta interpretatzeko hamaika bide ireki dituzte eta diziplina gero eta gehiagok partekatzen duten oinarri teknologiko bati forma eman diote: GPS datuen integrazioa, metadatuak, errealitate handitua eta birtuala, Big Data delakoa, programazio-lengoaiei bidezko aplikazio pertsonalizatuak, eta abar luze eta li-luragarri bat.

Nire kezka ez dator, beraz, azterketaren aldetik, diseinuaren aldetik baizik. Eta «Salaberria hipotesia» egia balitz? Ingurune teknologiko gero eta konplexuago bat, non denbora errealean milaka datu gurutza daitezkeen, non marra bakoitzak informazio-pakete bat esleitua duen... diseinatzailearentzat zer da hori, bultzada ala balazta? Dr. Jekyll esnatzen naizenean, pentsatzen dut diseinatzaileak teknologia aurrerapenen atzetik arrastaka goazela maiz, eta badugula hor zer hobetua; Mr. Hyde esnatzen naizenean, ordea, iruditzen zait diseinu-prozesuari garrantzia gutxi ematen zaiola oro har eta horrek derrigor duela isla teknologiaren munduan hartzen diren erabakietan. Manifestu pendiente bat, beraz, erreminta egon dadin gure esanetara eta ez alderantziz. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Ez txeke zuririk, ez mutur luzerik

Suposatzen da asteari zeharka begiratuko zaiola ondorengo lerroetan. Zaila da, baina. Batzuetan formatu agortua dela pentsatzen dut, azkar, azkarregi doalako dena. Espainiako hauteskundeak, adibidez, urruti daudela ematen du, gainerik kendu dugun pisu bat direla jada, baina hamahiru egun besterik ez dira pasa. Eta bati idazteko txanda tokatzen zaionerako direnak eta ez direnak esanda daudela iruditzen zaio. Gauza berriak esatea ez da erraza.

Denboraz kanpo diruditen arren, zenbait kontu aipatu nahi nituzke. Azkar-azkar. Emaizta politikak utzi dizkigute hauteskundeak, bai. Txukun-txukunak. Aurrera begira itxaropentsu egotekoak. Berriz, beste behin ere, lezio ederra eman digu Euskal Herriak, alderdi guztiak – EH Bildu barne – baino hobe, argiago, azkarrago ibili delako. Sarri entzun diet min-kide handiei kezka berbera, ez ote garen helburu handietarako herririk gabe geratu. Bada, herria hor dago, zain, jakintsu, den bezalako, inoren sermoiei itxaron gabe. Errua herriarena? Ez, mesedez!

Ados nago ere hor non-bait irakurri dudana aipamenekin. EH Bildu, gero eta gehiago, Euskal Herriaren irudi eta antzera gorpuzten ari da. Jende berria, askotarikoa, zapore herritarra, hori guztia badauka, eta ez da gutxi. Jakina hutsuneak daudela, baita eremu batzuetan nahi eta ezin mingarrien zantzuak ere, baina, oro har, EH Bilduren eta Euskal Herriaren arteko intimitate sinbiotikoa ikusgarri gorpuztu da. Eta hori, EH Bilduk finkatutako posizio zintzo eta argi batekin laguntzen bada, EH Bildu hitzezko aukera dela herriratzen bada, aukera biderkatzailea da.

EAJk irabazi ditu hauteskundeak, baina haserre ikusi dut. Bizpahiru kontu. Kristoren aurpegia edukitzea da, zementuzkoa, NaBaiko Uxue Barkosek Madrilen eserlekua lortu zuenean emaitzak bere zakuan sartzea eta NaBaiko Maria Solanak erridikulua egitean aipamenik ere ez egitea. Hots, komenentziaren arabera, batzuetan

lau herrialde ko eta besteetan hiruko alderdia izatea. EH Bilduk talde parlamentario propioa izango duelako ere badaude suminduta, Euzkadi Buru Batzarreko buruaren hitzak erakusle. Euskal hitzaren, interlokuzioaren monopolioa ez dutelako aurrerantzean jabego pribatu izango. Zenbait hamarkadaren ondoren, bi euskal talde parlamentario egongo dira, bata autonomista, hiru herrialderen ordezkari, bestea independentista, lau herrialderen ordezkari. Ea zer-nolako informazioa ematen den ETBko albistegietan, ea «*grupo vasco en el Congreso*» horretaz aritzean, zertaz ari diren. Esperantza gutxi dut ETBn instalatu den alderdikeria lotsagabea ikusita, baina, okerreko begiaz bada ere, begiratuko diogu egin beharko duten pirueta horri.

Bizpahiru gauza gehiago: Pedro Sanchez eta Pablo Iglesiasen arteko besarkadarekin ez dut uste euskal jen-

EH Bilduren eta Euskal Herriaren intimitate sinbiotikoa ikusgarri gorpuztu da. EH Bildu, gero eta gehiago, Euskal Herriaren irudi eta antzera egiten, gorpuzten ari da

dea *pikatu* edo haserretu denik. Horren inguruan aritzean, aurretiaz, prebentiboki-edo, ez dut uste sumindu plantak egiten aritzea inteligentea denik. Txeke zuririk ez, ados; mutur luze eta marmarti aritzea ere ez.

Nik ere ez dakizkit besarkada edo paktu horren atzean dauden arrazoiak. Usaindu daitezke, baina ez dakizkigu. Jakina lehen lasaitu horren ondoren, gorriak eta bost datozela. Jakina krisia sistemikoa eta konstituzionala dela, baina igual ez da Britainia Handiak duena baino handiagoa. Jakina badaudela krisi ekonomiko berri baten hotsak, Kataluniako gatazka, eta abar. Espainiarentzat aterabide oso posible bat autoritarismoaren atetik pasatzen dela egia da. Ikusiko da. Bitartean gozatu emaitzekin, patxada pixka bat, eta gogoan beti premisa lunatikoein konklusio eroak ateratzen direla. •

ERASOTZAILEA JOMUGAN

Sexu erasoen erantzukizuna ez ezik, haiek saihesteko ardura ere, erasotzaileena

Euskaral Herriko jaiak direla-eta, esaterako, erakundeek sexu erasoak saihesteko zabaldu izan dituzten gomendioen inguruan ez da polemikarik falta izan. Ohiko gomendioek balizko biktimarengan jartzen baitute arreta, erasoak saihestea haren ardura balitz bezala, eta, horien arabera, eman lezake emakume horren askatasuna murriztea dela sexu erasoak saihesteko modurik onena.

Sexu erasoak jaso duenaren edo jaso lezakeenaren gainean fokua jarri beharren, erasotzailearen gainean jarri beharra sumatu zuen Ziortza Karrantza Gurenduz Psikologia Integrale-

JENDARTEA / Xabier Izaga Gonzalez

Sexu erasoak saihesteko gomendio eta gida ugari argitaratu izan dira, normalean erasoak jasan lezakeenarentzako gomendioak. Gurenduz zentroko kideek diotenez, ordea, erasoen erantzukizuna ez da biktimarena, erasotzailearena baizik. Hari zuzendua da «Sexu erasoak ekiditeko behin betiko gida».

ko Zentroko zuzendariak. Bada, erasok saihesteko gida bat argitaratu berri du eta arreta guztia balizko erasotzailearengana bideratzen du, harentzako gomendio edo jarraibidez.

Azaroaren 8an aurkeztu zuen Gurenduz Psikologia eta Sexo-

Ziortza Karrantza, sexu erasoak saihesteko gidaren egilea. Aritz LOIOLA | FOKU

logia Zentroak «Sexu erasoak ekiditeko behin betiko gida», «gida praktikoa eta berritzailea».

Gidaren sarreran diotenez, azken urteotan esparru publikoetan emakumeek jasotako erasoen salaketak nabarmen areagotu dira eta, gainera, ema-

kume batek daramatzan arropak, eman lezakeen alkohol-mailak eta haren bizitza erotikokoak zalantzan jarri ohi dute erasoak jasan duen emakumeari gertatutakoa. Hori dela eta, funtsezkotzat jotzen dute gizarte arazo horri erantzuteko eta ikuspegi berri bat eskaintzeko, gida hau argitaratzea.

ERASOTZAILEA, ERANTZULE BAKARRA

Gurenduz zentroko kideen ustez, eraso sexuala erasotzailearen erantzukizuna da; horregatik, hari mintzo zaizkio gidaren puntu guztietan. Basetetik, hainbat hizkuntzatara itzuli dute hedapen handiagoa izan dezan, eta, hala, sexu erasoaren murrizketa esanguratsua izan dadin.

«Sexuen arteko topaketa eta elkarbizitza positiboa lortu nahian, emakumeengan fokua jartzen duten kurtso eta argitalpenak osatzeko asmotan, ikuspegi berri bat eskaini nahi dugu. Gida honetan, eraso sexuala aurre egiteko ardura balizko erasotzaileei dagokie. Izan ere, haiek dira erasoaren arduradun bakarrak», jarraitzen du gidaren sarrerak. Bertan, jarraibide erabilgarri, praktikoa eta pedagogikoa eskaintzen dituzte.

Ikuspegi berritzailea da, inondik ere, Gurenduz zentroak argitaratu duen gidarena: sexu erasoak saihestek ez du zertan balizko biktimaren ardura izan, erasotzailearena baizik, gidaren egile Ziortza Karrantzaren ustez. Erasotzaileak edo erasotzaile baten berri duenak nola jokatu behar duten jakin dezaten egin dute zazpi puntuko gida, GAUR8ri nabarmendu dionez. Izan ere, ohikoak dira balizko biktimek arrisku egoera batean nola jokatu behar duten jakiteko gomendioak, baina ez erasotzaileek.



Polemika sortu izan duten biktimei zuzendutako gida edo gomendio horiek aipatuta, Karranzak dio horrelako gidak ikusteak haserretzen zituela, baina ez zegoela alternatibarik, eta alternatibarik ezak eraman zituela fokua aldatu duen gida hau egitera: «Haiek, eta ez guk, zer egin behar duten dioena, azken batean erasotzaileek daukate erantzukizun guztia».

ERREAKZIOAK

Zer eragin izango ote du gida honek erasotzaileengan? Zernolako erreakzioa izango dute gida horren berri izanda? Karrantzaren ustez, bi erreakzio eragin ditzake gidak. Bat, barre egitea izan daitekeela dio, baina baita eurek begiradak beren gainean daudela sentitzea ere. «Nolabait seinalatuta sentituko dira». Eta, beste alde batetik, biktimak izan direnek ez dutela zerbait egin ez izanaren ardurarik sentituko, gida horrek ez die erruduntasun sentimendurik eragingo, «hori gertatzen bazaigu, ez baita gure erantzukizuna».

Biktimen erruduntasun sentimenduaz ari dela, erasoan zer eragin izan duen aztertzean biktima kolokan jartzen dela azaldu du Karrantzak. Prozesu horretan biktimak bere buruari gauza bera planteatzen dio: zer arropa zeramatzan, ordua edo beste kontu batzuk. Izan ere, sexu erasoak jasan dutenek, indarkeria jasan duten emakumeek, oro har, erasoak eragin duen zerbait egin ote duten galdetu ohi diote beren buruari, besteak beste lotsa sentitzen dute maiz, sexu harreman berrietarako zailtasunak izaten dituzte... Horregatik uste du Karrantzak oso garrantzitsua dela ikuspegia aldatzea.

Jendearen harrerari dago-kionez, Karrantzak ez du duda-

Gurenduz
Psikologia & Sexologia
Bilbo

SEXU ERASOAK EKIDITEKO BEHIN BETIKO GIDA

www.gurenduz.com



Gurenduz psikologia
zentroak aurkeztutako
gida.
GAUR8

rik. Oso positiboa izan dela dio. Jakin duenez, badira WhatsApp bidez gida zabaltzen ari diren gizon taldeak. Eta jasotzen dutenen artean ere zenbait erreakzio gertatzen dira: batzuen barreak, grazia egiten baitie, eta beste zenbaiten hausnarketa, «behingoz» horrelako gida agertu izana txalotuz. Esan bezala, hainbat hizkuntzatara itzulita dago, eta, Karranzak dioenez, badago jendea hizkuntza gehiagotara itzultzeko deitu diena.

EREDU ALDAKETA

Gidaren zazpi puntuei ohar bat erantsi diote, erasotzaileari bere burua eguneratzeko eskatzeko, maskulinitate eredua aldatzen ari dela ohartaraziz. Eredu berriek, diotenez, ez dituzte erasoak inondik inora justifikatzen; aitzitik, lotsagarritzat jotzen dituzte. «Erasoek gizontasuna eta gizonen balioa zalantzan jartzen dituzte», dio Karrantzak.

Erasotzailearentzako oharra da, baina gizarteak ere du berri horiek bere egin dituen galderak saihetsezina dirudi. Publi-

SEXU ERASOAK EKIDITEKO ZAZPI URRATSAK

Zazpi puntu argi eta labur ditu Gurenduz zentroak aurkeztu duen “Sexu erasoak ekiditeko behin betiko gida” lanak:

1.- Norbaitekin ligatu nahi baduzu, egizu jolas eta errespetutik.

2.- Beste pertsonak ez badu jolasean jarraitu nahi, erakutsi ez zarela ezgaitu emozionala eta urrundu zaitez.

3.- Zakila leku bero batean sartu nahi baduzu eta berak ez badu nahi, 15 euroren truke lataratutako bulbak topa ditzakezu. Eros ezazu bat eta sormena martxan jarri.


4.- Zure berotasuna kontrolatzeko gai ez bazara eta neska bat erasotzeko gogoak baduzu: masturba zaitez leku pribatu batean. Lasaitzea lortzen ez baduzu, eskatu

edalontzi bete izotz eta bertan zure zakila sartu baretu arte.

5.- Mozkortuta dagoen neska bat ikusten baduzu eta berari eraso egin nahi badiozu, alde egin zonaldetik ahal den eta lasterren eta 112 telefonora deitu zure arriskuaz jakinarazteko eta zure bila etortzeko.

6.- Ez badituzu emakumeak errespetatzen eta kontsumo objektutat hartzen badituzu, psikologiako profesional batekin harremanetan jarri zure arazoa konpontzen laguntzeko. Bitartean saiatu kalera ahal den eta gutxien ateratzen.

7.- Arazo hau duen baten bat ezagutzen baduzu, gida hau pasa iezaiozu eta anima ezazu hobetzeko urratsak eman ditzan.



Mezu argi, zuzen eta

- ulerterraza Iruñeko
- horma batean, aurtengo
- sanferminetan. Behean,
- antzeko mezu jendetsua,
- iaz, Donostian,
- bortxaketa bat salatzeko.

Idoia ZABALETA - Jagoba MANTEROLA | FOKU



tatea, kasu, parekidetasuna aldarrikatzen duen eredu batekin bat dator edo eredu zaharkitua da nagusi? Karranzak dioenez, egia da oraindik orain emakumea objektu gisa tratatzen duen publizitate asko dagoela, gizarteak kontsumitzen dituen telebistako saioetan, filmetan edo abestietan eredu zaharkitua nagusi dela, baina eredu horren aurka egin beharra dagoela uste du, kolokan jarri. Uste du badela garaia, are gehiago sexu erasoak gertatzean, oso gizon maskulinoak direla erakutsi beharrean zerbait lotsagarria egin dutela ikusarazteko.

Merkatua emakumearen irudia aldatu beharraz konturatzen ari dela dirudiela dio, etekin ekonomikoari begira besterik ez bada ere, eta denek konturatu behar dutela tratara zaharkitu horrek ez duela saltzen. Jostailuei dagokienez argi ikusten dela dio: «Betiko jostailuak markatzea, neskarena eta mutilarena, ez da gaur egungo zerbait. Irudiak, rolak aldatuz joan behar dira. Uste dut, ildo horretan, erotika, sexu arteko harremanak nola bideratzen diren ikusi beharra dagoela. Ikusi behar dugu erasotzaileak nola arduratzen di-

ren beren desirak beste modu batez asetzeko».

Gidako sarreraren amaieran eskertze bat dago, besteak beste «eraso sexual bat izan eta

Ikuspegi berritzailea da, inondik ere, Gurenduz zentroak argitaratu duen gidarena: sexu erasoak saihesteak ez du zertan balizko biktimaren ardura izan, erasotzailearena baizik

Helburua biktimari erruduntasun sentimendua eta ardura kentzea eta horiek erasotzailearen gainean jartzea da, «baina baita hari laguntza eskaintzea, berak bere gaitz hori kudea dezan»

gero, haien bizipenak gainditzeko nigan konfiantza jarri duten emakume guztiei». Gida, izan ere, Gurenduz zentroan ikusitako erruduntasun sentimendua eta gainerako ondorioek iradokia da: «Oraindik ere ikusten ditugu epaiketetan begiradak biktimaren gainean, eta batzuetan gizartea ez da konturatzen zenbateko mina eragiten dion horrek. Oso bizipen latza izan dute, gainditu behar dutena, gero beren erotika berreskuratu behar dute, alde horretatik oso erasanda geratzen baitira askotan, bizitza berreskuratu behar dute. Ez dakit gizartea konturatzen den zenbateko eragina daukan horrek pertsona batengan. Hori guztia kontuan izanda sortu da gida».

HELBURU BIKOITZA

Beraz, gidaren helburua biktimari erruduntasun sentimendua eta ardura kentzea eta horiek erasotzailearen gainean jartzea da, «baina baita hari laguntza eskaintzea, berak bere gaitz hori kudea dezan». Norberak bere gauzez arduratu beharra daukala dio Karranzak; hala ere, gidako zazpigarren puntuak dioen bezala, besteren bati hori gertatzen zaiola ikusita, erreakzionatu egin beharra dagoela dio, eta taldeakako bortxaketak ekarri ditu hizpidera: «zuzenean jokaera hori ez duenak ere erantzukizuna dauka».

Emakumeek ohiko gomen-dioak zorrotz-zorrotz betetzen badituzte, baliteke askoz eraso gutxiago izatea. Baina emakumeek beren askatasuna murriztu beharrean daude. Erasotzaileek gida hau zorrotz-zorrotz betetzen badute, ez da erasorik izango, ezta inoren eskubide eta askatasun murrizketarik ere.



Jon URBE | FOKU

IKUSMIRA


NORBANAKOAREN ESKUBIDEA, GEHIAGORENA

San Telmo Museoan aurkeztu berri dute Euskaraldiaren bigarren edizioa. Norbanakotik taldera jauzi egitera deitu dute, eta proposamenak badu zentzurik, ekimenaren bigarren edizioa euskal gizartea gai duen museo batean aurkezteak adinako zentzua. Hizkuntza eskubiderik ez dagoela entzunaren entzunez ahaztuta geunden desagertu ez diren hizkuntzek hitzunik dituztela. Bai, badakigu hizkuntzek ez dutela eskubiderik, baina hitzunek... edo hizkuntza batzuen hitzunek bai eta beste batzuenek -gehienenek- ez? Eskubide kolektiborik ez dagoela entzunaren entzunez, ahaztuta geunden, halaber, norbanakoek osatzen dituztela kolektibitateak, taldeak, gizartea, alegia. Eskubideak norbanakoarenak direla esan digute eta nik ez dut ezetz esango, baina euskara norbanakoaren eskubidea izan da urte askoan, txakurrarekin baino ezin parteka zitekeen eskubidea. Badu zentzurik taldera jauzi egin eta nonahi «ariguneak» topatzea, euskaraz bizi nahi duen orok horretarako aukera izan dezan. Ez litzateke gehiegi, baina gutxi ere ez. Xabier Izaga Gonzalez



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:



Iruñeko udal frankistaren pailazokeria

**Xabier Mikel
Errekondo**

Errautsetatik piztia berpiztu da. Azken hauteskundeek gogor listutu digute desagertua omen zegoen frankismoa. Iruñeko udal gobernua hartu berri du eta hasia dute euskararen eta abertzale kutsua duen guztiaren aukako ehiza. Enrique Maya eskuin muturreko alkateak debekatu egin du Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazok azaroaren 29an Baluarten egitekoa zuten ikuskizuna.

Iñaki Azkuna Bilbok izan duen alkate-rik harro eta atzerakoienak ere 2009an hirukotearen emanaldia zentsuratu egin zuen. Ondorioz, BECen antolatu ikuskizu-

netan 10.000 haur eta guraso elkartu ziren. Nago biak ala biak ez direla lotsagatik masail gorritu ere egin arartekoek salatu arren erabakiok ideologikoak izan direla.

44 urte ondoren hilobitik atera dutenean, “Franco bizi dute!” uste baino herritar eta alderdi gehiagok, eta zoko usaina darrion Nafarroako eskuin muturra sorgin ehizaren politikara itzuli da.

Zer ote da baina alkate jaunak gorrotatzen duena, umeez irri egitea? Irri euskaraz egitea? Euskaraz irri egiten dutenak nabarrismoaren etsai potentzialak izatea? Hauteskunde batzuk nahikoak izan

dira koloreztatzen ari zen Nafarroa berriro mende erdi atzera zuri-beltzezko amesgaiztora itzultzeko.

Zentsurak negargura eragin die umeei, baina, malko artetik ere, Maya jauna nor den, “herriko gaiztoa”, helduek baino argiago ikusi dute. Aitortzen dut horrek ene Iruñea zahar maitearen etorkizuna kolore anitzekoa irudikatzen eramaten nauela.

Ziur naiz, orain hamar urte Azkunari bezala, abenduan Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batera milaka haur nafarren irri eta algarek Enrique Maya frankistari negargura eragingo diotela.

Zuretzat mailua, ergela!

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Haserretzen zarenean zer zara, mututzen den horietakoa? Alazumar negartia? Baliteke etxeko sukaldean epaiketa bat muntatzen dutenetakoa izatea, fiskal paperean aritzeko, eztabaida infinitu luzatuz, inor zergatik haserretu den oroitzen ez den arte. Denak isiltzeko garrasi histeriko bat botatzen dutenetakoa izan zaitezke, ala bertze haserretu mota bat. Zarena zarela, rola errepi-katzeko joera izanen duzu eztabaidaro, baita zure ingurukoek ere.

Bazkari batean, lankideok bi bandoman banatu ginen, haserre daudenean pasatu arte bakean uztea behar dutenak, eta konpondu arte gauzak argitzen saiatzea behar dutenak. Nola bete bien beharrak, justu kontrakoak izanik?

«Izan fidela zure buruarekin, eta pentsatu iritzi bakar batek balio duela: zureak». Hori da “Bizitza izorratzeko artea” liburuan Paul Watzlawickek ematen duen aholkuetako bat. Idazleak dioenez, edozein bizi daiteke ozpindua, baina bizitza nahita zapuztea ikasi egi-

ten den arte bat da. Adibidez, lagun bati mailua falta zaio eta bizilagunari eskatzea erabaki du. Zalantza sortu zaio: “Ez badit utzi nahi? Atzo ez ninduen sobera jator agurtu. Agian zerbait du nire kontra. Zer izanen da? Ez diot deus egin. Norbaitek tresnaren bat eskatuko balit, utziko nioke. Nola erraten ahal dio ezetz halako mesede erraz bati? Pentsatuko du bere mende nagoela, mailu bat duelako soilik”. Azkenean, lagunak hala oihukatu dio bizilagunari: «Zuretzat mailua, ergela!». •



>Musika Gida Morea



NAIZ+

Iparragirre Rock Elkartea Musika Gida Morea aurkeztu du «behingoz informazio falta ez dadin arrazoi edo aitzakiatzat hartu gure taulen gainean emakumezko erreferentziarik ez egoteko».



Musika Gida Moreak autokritika du abiapuntu. «Iparragirre Rock Elkartean, urteroko programazioan emakumez osaturiko taldeak bermatzea izan da helburuetako bat. Hala ere, sa-soi amaieretara heldutakoan,

proposamen hori bete gabe geratu dela konturatu izan gara. Hausnarketa eginez eta egoerari buelta emateko ahaleginetan, galdera pilo batekin egin dugu topo: arazoarekin kontzientziatuta egon arren, zein oztoporekin egiten dugu talka egunero-kotasunean? Zein da hain barneratua dugun musika eredu? Benetan, hain gutxi al dira rock munduan neskez osotutako taldeak? Zergatik ez ditugu ezagutzen?».

Gizartearen beste hainbat esparru bezala, Euskal Herriko oholtzak ere patriarkatuaren isla izan dira. Horren aurrean, emakumeen presentzia duen edozein talderi buruzko informazioa jasoko duen datu base digital zabal eta erabilgarri bat aurkeztu dute.

Herritarren laguntza ere eskatu dute zerrenda ahalik eta zabalena osatzeko. Oraingoz Euskal Herriko 60 bat taldek osatzen dute zerrenda. «Talderen bat falta dela uste baduzu, edo talde bati buruzko informazio osagarriarik helarazi nahi badiguzu, eman izena aplikazioan eta bete fitxa».



> Iruñeko Udalaren zentsurak sutan jarri ditu sareak

Azaroaren 29an Iruñeko Balaarten eskaini behar zuten “Bizi dantza” ikuskizuna joan den maiatzetik hitzartuta zuten Pirritx, Porrotx eta Mari-mototsek aurreko udal gobernuarekin, baina Navarra Sumak bertan behera utzi du ikuskizuna, erabakia hartzera bultzatu duen arrazoiaren inguruko azalpenik eman gabe.



Euskal txiolariek ez dute itxaron erabaki horren aurkako haserre adierazteko, baina, hori bai, beti irriaren aldeko deia eginez.

Nafarroako «euskalfobia» salatu dute batzuek, zentsura besteek, eta Udalak erakutsi duen euskararen kontrako jarrerara gaitzetsi dute erabakiaren berri jakin bezain laster.



> Kaleko Urdangak: «Morts pour la patrie»

Kaleko Urdangak taldeak Vis Vires talde estatubatuarrekin erdibanako disko motza argitaratu berri du hainbat zigiluren babespean. “Morts pour la patrie” da diskoko abestietako bat eta bideoklip bat ere kaleratu dute kanta horrekin. Hodei Izarrak grabatu eta ekoitzi du Kermen Atxurra, Maialen Arrinda eta Aingeru Bidaurretaren laguntzarekin, Elgeta, Gernika, Hondarribia eta Urruñan.



Bideoklipa kaleratu zuten egunean, azaroaren 11n, hain zuzen ere, Lehen Mundu Gerra amaitutzat eman zuen Versaillesko Itunaren sinaduraren urteurrena ospatu zen eta jai eguna zen Estatu frantsesean, baita Ipar Euskal Herrian ere. Lapurdi, Zubero eta Nafarroa Behereko sei mila herritar hil ziren gerra hartan, gehienak gazteak. Armistizioaren egunean hildakoak oroitzen dituzte.


> Urpekariak erreskatatzeko simulakroa Getarian

Iragan astean 50 bat pertsonak parte hartu zuten Getariako Malkorbe hondartzan zauritutako urpekariak erreskatatzeko eta artatzeko simulakroan. Blas de Lezo ikastetxeko Urpeko Eragiketetako eta Eragiketa Hiperbarikoetako Teknikaria zikloko lehen mailako ikasleek eta Easo Politeknikoko Osasun Larrialdietako zikloko bigarren mailako ikasleek egin zuten simulakroa.

«Larrialdi egoeretan ezinbestekoa da pertsonak eta baliabi-



deak koordinatzea, eta funtsezkoa da desagertutako pertsonak bilatzeko eta erreskatatzeko jardueretan», azaldu zuten ohar baten bidez. «Garrantzizkoa da, beraz, pieza guztiak behar bezala kateatzea, eta hau bezalako simulakroak larrialdietan esku hartzen duten lan taldeen eta baliabideen arteko koordinazioa hobetzeko dira. Bestetik, simulakro hauei esker ikasleak beraien etorkizuneko lanera gerturatzeko helburua lortzen dugu», gehitu zuten.



> «Aridane Hulk», superheroi gorritxo berria

Duela zenbait hilabetetik, esku anonimo batek Osasuna futbol taldearen une arrakastatsuen meritua dutenen irudiak Iruñeko hormetan margotzen ditu. Lehena “Torres Jainkoa” izan zen, ondoren “Oier Superman”, geroago “Brandon PTV” (Bizitza Guztiko Iruindarra), eta orain, Donibane auzoan Aridane agertu



da, Hulk bihurtuta. Izan ere, kanariarra gorritxoaren defentsako benetako Hulk da.

Karikaturok badituzte nabarmentzeko beste gauza batzuk ere. Esate baterako, Brandorenean “Un dels nostres” esaldia ageri da, beharbada, Balearretako jokariak erakutsi duen euskara ikasteko prestasuna dela eta.



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Malkoak euritan bezala



Paradoxikoki 2019an hil den Rutger Hauerren omenez. GAUR8

Gizakiek sinetsiko ez zenituzketen gauzak ikusi ditut. Eraso ontziak sutan Oriongo sorbaldatik harago. Tannhäuser Atari ondoan, C-izpiek iluntasuna nola argitzen zuten ikusi dut. Une horiek guztiak denboran galdu egingo dira, malkoak euritan bezala. Hiltzeko garaia da».

Hitz ezagun horiek dira Nexus-6 motako Roy Batty erreplikantearen azkenak; berau “erretiratzeko” segika duen Rick Deckard *blade runner*-a heriotzatik salbatu ostean, euripean egiten dion aitortza da zehazki. 1982an Ridley Scottek argitara eman dako “Blade Runner” filmak 2019ko azaroan kokatzen zuen etorkizun distopiko hura, “Amesten al dute androideek ardi elektrikoekin?” Philip

K. Dick liburua oinarri. Hilabete honetan, baina, adimen artifizialak utzi duen azken berria da 30 kilometroko erradioan %78ko ziurtasunarekin tximistarik egongo den auresateko gai dela. Urrunegi joan ziren, beraz, duela 37 urte androideen eta adimen artifizialaren garapenarekin, nahiz eta meteorologian aurreikuspen gaitasun itzela erakutsi, hilabetea hodeitza ilun eta hotzean, euritan blai emango genuela proiektatzean. Azaroa hilabete euritsua den bezain ziur ei zeuden sistemari sobratzen zaizkion, edo bere aurka borrokatzen diren “erreplikanteen” aurkako errepresio eta jazarpena itogarria izango zela 2019an ere. Ildo horretan, bustiaren gaineko euria besterik ez dakarkigu zientzia fikzio lan horrek.

Zalantza eragiten didana da 80ko hamarkadan errepresioaren bideak

erreplikanteak adina aniztu eta gogortuko zirenik auresaterik izango ote zuten. Amestuko ote zuten, 2019. urtean azaro euritsu bateko aste berean, hamaika ehiztari izango zirela han-hemenka “erreplikanteak erretiratzeko”; izan Bolivian indigenak hiltzen, Bilbon migranteak atxilotzen edota Iruñean emakumeak bahitzen...

Noiz eta “erreplikanteen erretiroarekin” loturiko efemeride bi gogortzen ditugunean herri txiki honetan. Batetik, espainiar erregimenaren aurka borrokatzeagatik azaroaren 20az “erretiratu” zituzten Santi eta Josu. Bestetik, Dominikar Errepublikako Trujillo diktadorearen aurka borrokatzeagatik Maria Teresa, Patricia eta Minerva Miraval ahizpak, azaroaren 25 batekin bahitu zituzten, jarraian heriotzara arte bortizki jipoituak izateko.

Zientzia fikzioaren artista horiek, imajinatza helduko ote ziren 1981ean lehen aldiz egin zen Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna bizi-bizi aldarrikatuko zela oraindik ere 2019an? Baietz esango nuke nik, hori guztia kontenplatu zutela etorkizun ilun batean androide batek gizakiari humanitatea zer den erakutsi behar diola planteatzean.

2019. urtea heldu da, eta ez du berarekin adimen artifizial nahikorik ekarri gizakioi humanitate lezioak emateko. Erreplikanteak, aldiz, han-hemenka ditugu, egunero, sinetsiko ez genituzkeen gauzak ikusi eta bizi dituztenak, tai gabe, egotera aldatzeko premiaren erakusle askotarikoak, atzo bezala gaur, azaroko euriak bezala, mela-mela uzten gaituztela. Ez daitezela denboran galdu, malkoak euritan bezala. •

{ koaderno } Iker Barandiaran

Belarria prest

Pasa den astean bost egunean bost kontzertutan izan nintzen. Horietako bakoitza kokagune desberdin batean, antolakuntza mota eta testuinguru guztiz ezberdinarekin; horietako bakoitza bere amarena baina guztiak primerakoak.

Horrelakoa da Euskal Herrian dugun musika eskaintza: aberatsa eta askotarikoa. Hori egiaztatzeko nahikoa da Musikazuzenean.com webgunea ikuskatzea edozein asteburutan, Euskal Herrian dugun musika emanaldien agenda osatuena, nahiz eta hortik kanpo ere izaten diren beste kontzertu asko. Izugarrizko altxorra dugu hemen, askoren hamarkadetako lanaren ondorioz garatutako azpiegiturek eta kontsumo ohiturek erraztu dutena, eta esker onez mantendu eta indartu beharko genukeena.

Bost egunean bost kontzertu ikustea erronka gisa «saldu» banuen ere, ez zen inolako sufrikarioa izan; ez zaila, ez nekeza ezta esker txarrekoa ere; alderantzizkoa, gozamina. Ezagun da aspaldidanik musika oso gustuko dudala; eta are gehiago zuzeneko formatuan. Hori baita niretzat musikaren esentzia baliotsuena, biziena eta eraginkorra. Asko da kontzertuek ematen didatena edo dutena, horietan jasotzen dudana; bai deskonektatzeko eta gozatzeko bai barrenak askatzeko. Eta edozeini gomendatzen diot: bada etxetik irtetea gustuko duena; lagun artean egotea maite duena; edateko asmoz kalera irteten dena; edo sorterritik kanpora irteteko beharra duenik. Horiek guztiak eta gehiago egin daitezke kontzertuetan. Eta, gainera, musikaz gozatu, jakina. Bestalde, kontzertu batera bakarrik joan zaitezke lasai asko, eta ziur egon musikaren eta inguruaren laguntzaz ez zarela inolaz ere bakarrik sentituko.

Oso gaztetan –beste askok bezala– konexio berezia lortu nuen garaiko hainbat musika talderekin: haien hitzekin, mezuekin eta musikarekin. Gertu-

koak zitzaizkigun kontuez, kalean bizi genuenaz, abesten zuten. Kantu horiek propio egin eta poliki-poliki musika abanikoa handitzen joan ginen, atzerriko talde batzuei ere ateak zabalduz. Ez genuen azken horien hitzak ulertzeko ahaleginik egiten, baina musikak harrapatu gintuen. Garai horretan zortekoa izan nintzen lagun-min baten arrebak Ingalaterratik diskoak ekartzen zizkigulako. Ordurako bagenuen bilatzeko grina eta punketik hardcorera egin genuen salto; musika bizitzeko, sentitzeko eta gauzak egiteko beste modu batera. Modu hori hain aktiboa eta horizontala izanik, Estatuko bazter desberdinetako talde eta eragileekin gutunak, informazioa eta beste trukatzeko hasi ginen; eta, modu horretan, gu ere eszena eraikitzen. Gauza batek beste bat ekarri, eta, Arrasateko lehen gaztetxean ikusle edo erabiltzaile soilak baginen ere (gure adina hala-koa zen), bigarren gaztetxea eratzekeko prozesuan bu-

Bost egunean bost kontzertu ikustea erronka gisa «saldu» banuen ere, ez zen sufrikarioa izan; alderantziz, gozamina. Asko da kontzertuek ematen didatena eta horietan jasotzen dudana, bai deskonektatu eta gozatzeko bai barrenak askatzeko

ru-belarri sartu ginen alternatibak eraikiz, izugarri ikasiz eta musikari ere bestelako bultzada bat emanaz. Horren erakusle, zuzenekoetarako erreferentziazkoa bihurtu zen gune hori elikatu genuen.

Gaztetxeen eszena ez dugu inoiz alboratu nahi izan, balizko zaigu betirako. Baina horri gehitu behar diogu Euskal Herriko hirian izandako egonaldiaren gozatutako guztia, eta baita etxe ondoan Euskal Herriko kontzertu areto garrantzitsuenetakoak (Txibisto, Txitxarro eta Jam) izanaren luxua eta horrek ekarritako milaka aukerak ere. •

«Ez banauzu ezagutzen, ez baduzu nire errealitatea ezagutzen, ez nauzu inoiz onartuko»

Euskal Herriko Elkarleen plaza da Bizipoza, elkarleen elkarlea. «Umekin edo umeen eskubideen alde lan egiten dugun elkarleak gara eta beti euskaraz lan egiten dugu. Horrek batzen gaitu», hasi da azaltzen Amaia Irazusta. Bizipozako talde eragileko kidea da, baita Pausoka elkarlekoa ere.

Guztira, egun, 35 elkarlek osatzen dute sarea. Bakoitzak bere errealitatea, bere beharrak eta zuloak dauzka, baina denak batzen dira «nahi eta helburu berdinen bueltan». Leire Elizegik, Bizipozako koordinatzaileak, zehaztu duenez, ideia nagusi bat da Bizipozaren motorra: munduak guztiontzat beharko luke. Baina, gaur-gaurkoz, ez denez denontzat, «pertsona guztien eskubide guztiak bermatuak izango dituen Euskal Herri inklusibo bat eraikitzea» jarri dute eginbehar.

Elkarte hauen helburu nagusietako bat jendarteak ikus ditzan da. Ikusi, ezagutu, haien errealitatea ulertu, haien egoerara lotu, jendarteratzen lagundu. Bide horretan josi dute «Gure Bizipoza, guztiona» dokumentala, hogeitun minuturen bueltako lana, eta elkarle bakoitzaren dokuweba, bizpahiru minuturen bueltako 33 mikrodokumental. Egunerokoan behar bereziagoak eta ugariagoak dituzten haurren eta familien azalean edota diskriminazio arriskuan dauden azalean jartzen laguntzen duten lanak dira. Oraintxe ari dira Euskal Herrian barna aurkezpen lanetan eta dagoeneko Bizipozaren web orrialdean ikus daitezke lan guztiak (www.bizipoza.eus).

LEIRE ELIZEGI ETA AMAIA IRAZUSTA

BIZIPOZAKO KOORDINATZAILEA ETA TALDE ERAGILEKO KIDEA

Batzuetan bizitzak zangotrabatu egiten zaitu. Gaixotasun bat ekartzen dizu parera, ezintasunen bat lotu, diskriminatua izateko arriskuan jarri, ulertzen ez zaituen jendarte batean paratu, zuloak egin. «Zergatik niri» fasea gaindituta, arazoak baino irtenbideak indartsuago ikusten dituzten 35 elkarle batzen ditu Bizipozak. Sare horren inguruko dokumental bat eta elkarle bakoitzari buruzko mikrodokumentalak osatu dituzte, jendartearen bistara ateratzeko.

Amagoia Mujika Telleria

Arena ekoiztetxeak josi du lana eta finantziazioa Dano-batgroup taldeak bultzatu du. «Egia esan proiektua hasieratik oso berezia izan da. Dano-batgroupek ‘Elkarrekin Eragin’ egitasmoa jarri zuen martxan eta kooperatibako bazkideei eman zien aukera proiektzio soziala duten proiektuak proposatzeko. 1.300 bazkideren artean erabaki zuten konpromiso soziala nola bideratu eta haiek aukeratu zuten Bizipozaren proiektua bultzatzea. Guretzat hori bera, bazkideek aukeratutako proiektua izatea, benetan berezia eta pozgarria da», zehaztu du Leire Elizegik.

MUNDUA, GUZTIONTZAT

Munduak guztiontzat beharko luke. Horixe, Bizipozaren motorra. Baina, noiz konturatzen da bat mundua ez dela guztiontzat? «Edozein arrazoi dela-eta desberdina sentitzen zarenean, mundua berdinentzat eraikia dagoela konturatzen zara. Molde horretan kabitzen ez zarenean, zure eskubideak urratu egiten dira eta hor hasten dira zure aldarrikapenak. Bizipozan elkartu gara urraketak horien arazoak desberdinak izan arren, eskubide horiek lortzeko bidea antzekoa delako. Batak bestearekin ikasi egiten dugu eta, gainera, batzuk besteekin elkartzen garenean, indartu egiten gara». Irazustak, garbi dauka.

Bizipozaren magalean batu diren elkarleak askotarikoak dira, tamaina desberdina dute, hutsune propioak, helburu jakinak, oztopo zehatzak. Baina, bidean topatu dira. «Gizartean dagoen gabezia baten ondorioz sortu gara elkarle guztiak, gure eskubideak urratuak izan direlako. Txikiak zein handiak

izan, garbi dugu bidea. Kasu gehienetan, erakundeek egin behar duten lana egiten dugu elkarleok, gure gain hartzen dugu zama hori, gure haurren eskubideak betetzea nahi dugulako. Eskubideak exijitzen ditugu, ez dugu karitaterik eskatzen», jarraitu du Irazustak.

Bada, hala ere, batzen dituen beste tasun bat. «Zuk ez duzu erabakitzen non eta nola jaio, zein genero izan edo sentitu, nor maitatu, gaixotasun bat izan edo ez... Horiek egokitu egiten zaizkizu eta ezin dituzu aukeratu, baina bai aukeratu dezakezu horien aurrean zein jarrera izan. Bizipozan elkartzen garen elkarleen ezaugarrietako bat hori da: jarrera positiboa dugu. Zailtasunak ditugu egunerokoan eta batzuetan haserretu egiten gara, baina saiatzen gara bizitzaren alde positiboari eusten, elkartzen eta aurrera egiten. Baikortasunetik egiten dugu lan eta hortik elkarlearen izena: Bizipoza», berriz, Irazustak.

Aniztasuna. Hitzetik hortzera dabilen hitza izanagatik, «gure mundu honetan aniztasuna kabiarazteko tresnarik» ez dagoela garbi dute Bizipozan. Hortik beren borroka.

«Orokorrean iruditzen zait desberdintasuna ez dugula erraz onartzen. Errazago eta erosoago moldatzen gara berdinen edo antzekoen artean. Baina aniztasunean bizi ahal izateko desberdintasunak onartu behar ditugu, hori da lehen urratsa».

Elizegik gehitu duenez, «desberdintasunak onartzeko lehendabizi ezagutu egin behar ditugu. Gure dokumentalaren eta dokuweben aurkezpenetan behin eta berriz errepikatzen ari den egoera da. Jendea hur-

biltzen zaigu esatera ez zituztela errealitate horiek ezagutzen. Askotan, ondo-ondoan izanagatik, ez ditugu errealitate desberdinak ezagutzen. Eta zerbait onartzeko, errespetatzeko, lehendabizi ezagutu egin behar da».

TRESNA OSO BALIAGARRIA

Horregatik, jendartean ikusgarritasuna beharrezkoa dutelako, dokumentalak eta dokuwebak arnasa emango dietela garbi daukate. Irazustaren esanean, «tresna oso baliagarriak dira guretzako. Gure errealitatea plazaratzeko baliabide oso-oso aberatsa. Dokumental orokorra garrantzitsua da, guztiok gaudelako bertan eta elkar aberasten dugulako. Baina, gero, elkarre bakoitzari buruzko mikrodokumental horiek ere benetan baliagarriak dira elkarre bakoitzarentzat. Gaur bertan ikastola batean egon naiz Pausoka elkarre zer den azaltzen eta mikrodokumentala erabili dut horretarako. Tresna bikaina da guretzako eta gure kabuz ezingo genukeen egin. Elkarre bideratzen ditugun ekintza guztietan horixe da helburu nagusia: gerturatu zaitez eta ezagutu nazu. Izan ere, ez banauzu ezagutzen, ez baduzu nire errealitatea ezagutzen, ez nauzu inoiz onartuko».

«Behin errealitate horiek ezagututa, zure aukera da beste aldera begiratzea edo ez. Baina gure helburua da elkarre errealitatea ezagutzera ematea da, lehen lerrora ekartzea», gaineratu du Elizegik.

Bizipozako elkarre beren beharrak asetzeko lan eta borroka egiten dute egunez egun, baina bere ekite horretan, jendarte aberasten dute. «Adibidez, aniztasun funtzionala duten haurren kasuan,



Andoni CANELLADA | FOKU



«Orokorrean iruditzen zait desberdintasuna ez dugula erraz onartzen. Errazago eta erosoago moldatzen gara berdinen edo antzekoen artean. Baina aniztasunean bizi ahal izateko desberdintasunak onartu behar ditugu»

zalantza handienetako bat izaten da haur horiek ohiko eskoletan integratzea edo eskola berezietara bideratzea. Ohiko eskoletara joaten direnean, gainontzeko haurrekin batera, beren ingurukoei erakusten ari gara haurrok jendartearen parte direla, ez daudela apartatutako eskola berezi batean gordeta. Hori txikitandik lantzen baduzu, haur horiek helduak direnean kontuan izango dituzte aniztasun funtzionala duten haurrak. Zergatik? Ba beren egunerokoan presentzia izan dutelako. Ezagutza eta elkarbizitza bultzatu behar ditugu», iritzi dio Irazustak.

Adibidez, eskola kirolean, musika eskolan, kiroldegiko jardueratan edota udako eskaintzetan, haur guztientzako tokia al dago? «Aurkezpenetan askotan esaten diet haurrei. Zuen buruhaustea udan surfa edo arrauna aukeratu beharra

izaten da, ezta? Ba badira haur asko udako eskaintza horietatik kanpo geratzen direnak». Alegia, pareta asko daudela oraindik botatzeko.

Hori gutxi ez eta gaixotasun ezohikoak dituztenak edo aniztasun funtzionala dutenak behar dituzten terapiak ez dira inondik inora poltsiko guztien neurrikoak. «Askotan familiek ez dute baliabiderik beren haurren beharrak ase ahal izateko. Eta eskubideez ari gara. Haur horiek behar dituzten terapiak eskuratzeko eskubidea daukate eta familiek ez dute zertan ero moduan ibili behar zuloak tapatzen», gaineratu du Elizegik.

Familiek, gainera, buelta asko eman behar izaten dituzte, ate asko jo behar izaten dituzte eta burokraziaren izenean alferrikako buelta asko eman.

«Medikuntzan aurrerakuntza garrantzitsuak eman dira

eta haur horien bizi kalitatea hobetu egin da eta bizi itxaropena luzatu. Baina baliabideetan aurrerakuntzak ez dira medikuntzaren neurri berean eman eta hutsuneak gero eta nabarmenagoak dira», salatu du Irazustak.

Informazioa, esperantza, zerbitzuak, normalizazioa, integrazioa, sentsibilizazioa, pazientzia, hormak hausteko indarra. Dokumentalean eta mikrodokumentalean behin eta berriz entzuten diren hitzak dira, esaten dituztenen ahotan sinesgarritasun zorrotza hartzen dutenak.

«Nire helburua, Pausoka, elkarre bezala, desagertzea da. Helburua da erakunde publikoek gure beharrak asetzea eta guztiok kabitze moduko mundua eraikitzea. Hori ziurtatuta balego, ez genuke existitu behar», bukatu du zorrotz Amaia Irazustak.

Bizipoza, Euskal Herriko elkarten plaza

ASPANIF

Erbi ezpaindun edo ahosabai hautsia duten haurren familien elkarte. Patologia ezezaguna da eta familiak babestea eta informatzea da helburua.

BIHOTZEZ

Sortzetiko kardiopatia duten hurrek, gazteek eta euren familiek osatzen dute. Bihotz desberdinarekin jaio direnen bizi kalitatea hobetzea da erronka.

ETIOPIA UTOPIA

Tigray eskualdeko eta hedaturaz Etiopiako biztanleen bizi baldintzak hobetzeko lanean ari dira. Genero, hezkuntza edota osasun arloetan ari dira.

AFESTTA

Tourette sindromea daukatenek eta beren familiek osatua. Sindrome zaila da, kronikoa eta sendabiderik gabea. Ulertuak eta onartuak izatea da helburua.

SANFILIPPO

Sanfilippo sindromea pairatzen duten haurren, senideen eta lagunen elkarte. Familiak babestu, bizi baldintzak hobetu eta ikerkuntza bultzatzen dute besteren artean.



Zenbait elkartetako kideak. Lehen pertsonan kontatu dute beraien errealitatea mikrodokumentaletan. GAUR8

PAUSOKA

Behar bereziak dituzten haurren gurasoek osatutako elkarte. Diziplina anitzeko errehabilitazio terapiak bultzatzen dituzte. Integrazioa dute erronka.

GURE SEÑEAK

Gaixotasun arraro bat edo ezintasun handia pairatzen duten neska-mutiei eta familiei babesa eta laguntza eskaintzeko elkarte. Egunerokoa errazten saiatzen dira.

INTEGRAZIO BATZORDEA

Seaskan ahalmen urria duten hurrei eta familiei laguntza emateko elkarte. Euskarazko ikastola eskaini nahi diete, dituzten mugei hizkuntzarena ez gehitzeko.

DRAVET

Dravet sindromea edo antzeko patologiak dituzten pazienteen elkarte. Gaixotasun gogorra da, krisiak larriak dira eta edozein unetan etor daitezke.

KALE DOR KAYIKO

Herri baten sustapena ume eta gazteengandik hasten delako, Kale Dor Kayiko etorkizuneko ijitoak dira. Horretan dabilta 1989tik, ijitoen eskubideen alde.

MINDARA

Pertsona ezberdinak berdinak sentitzen diren tokia. Oarsoaldean aritzen da lanean, kirol egokitu, jarduera fisiko inklusibo, aisialdi eta formakuntza arloetan.

GURE NAHIA

Gaixotasun arraroa duten hurrei laguntzeko elkarte da. Familiak babestea, laguntza eskaintzea eta terapiak topatzea da helburua.

ARNASA

Fibrosi kistikoa dutenen eta euren senideen Gipuzkoako elkarte. Xede nagusia bai fibrosi kistikoa dutenen bai ingurukoen bizi kalitatea hobetzea da.

AGIPASE

Familia krisietan laguntzeko elkarte. Ohiko familia tradizionalei zein sortzen ari diren familia eredu berriei laguntzea da helburu nagusia.

JUNEREN HEGOAK

Lagun talde batek jositako boluntario sarea da. Gaixotasun larriak dituzten edota egoera zaurgarrian daudenei babesa eta laguntza eskaintzen die.

ADEMGI

Esklerosi anizkoitza duten pertsonen eta hauen senideen bizi-kalitatea hobetzea du helburu nagusia. Gaixotasun gogorra da eta bide latz hori samurtzea da asmoa.

ULERTUZ

Bizkaiko Haur Gorren Familia eta Lagunen Elkartea. Entzumen urritasuna duten neska-mutilei eta beren familiei laguntzen diete, dauden hutsuneak bete nahian.

BEROA

Gipuzkoako Harrera Familien elkartea. Arrazoi ezberdinengatik beraien familia biologikoarekin bizi ezin diren adingabeentzat babes sarea josi dute.



Elkarteetako familien eguneroko bizitzaren parte bat jaso dute dokumentalean. GAUR8

CHERNOBILEN LAGUNAK

Txernobyleko zentral nuklearreko hondamendiaren ondorio erradioaktiboak jasaten ari diren umeen osasuna hobetzea da helburua.

HIRU HAMABI

Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familiek osatua. Haurrek eta beren familiek dituzten zailtasunak samurtzea da helburu nagusia.

GIZAKIEN LURRA

Nazioarteko sare baten baitan, ehun proiektu baino gehiago bultzatzen ditu, hiru gunetan banaturik: babesa, ama eta haurren osasuna, eta haurren eskubideak.

GKEF

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa. Helburu nagusia kirol eta jarduera fisiko egokitua eta inklusiboa sustatzea eta antolatzea da. Pertsona orok kirola egiteko eskubidea izan dezan.

NAIZEN

Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako adin txikiko transexualen familiak biltzen dituen elkartea da. Informazioa ematea, babesa eskaintzea, elkar laguntzea eta jendartea sensibilizatzea da asmoa.

BANAIZ BAGARA

Etorkinentzat eta ikasteko behar bereziak dituzten kolektiboentzat euskara ikastaroak eskaintzen ditu. Batez ere lanerako behar dituzten euskarazko gaitasunak lantzen dituzte.

GUZTIOK

Bortzirietako elkartea. Behar bereziak edota une jakin batean behar berezi bat duten Bortzirietako umeen beharrak asetzeko sortua, zonaldean ez dauden terapiak eta zerbitzuak eskaintzen ditu.

ASPAOVAS

Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkartea. Haur minbiziaz kaltetutako familien kalitatezko arreta bermatzeko lan egiten du, diagnosiaren lehen unetik babesa, laguntza eta baliabideak eskainiz.

BIAK BAT

Altsasun sortua 2011n. Helburua, animaliek lagundutako esku hartzeen bidez, aniztasun funtzionala duten edo zailtasun sozialean dauden pertsonen ongizatea hobetzea da.

OPORRAK BAKEAN

Haur sahararren harrera sarea. Udako oporretan, 10 eta 12 urte bitarteko saharar haur errefuxiatuak familia euskaldunetan edo udalekuetan izatea ahalbidetzen du.

DOWN SINDROMEAK

Adimen urritasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetzea da fundazioaren xedea. Programa berritzaileak garatzen dira, gizarteratzea eta gizartean parte hartzea errazteko.

NDANK NDANK

Talde misto bat da, familia eta lagun senegaldar eta euskaldunetz osatua. Bi helburu nagusi dauzka: kulturartekotasuna eta garapenerako lankidetzak. Bergaran zein inguruko herrietan aritzen dira.

GEHITU

Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual eta Intersexualen Elkartea. Eskubideak ziurtatzeko, sexuafektibitatea garatzeko eta orientazio sexualean laguntzeko lan egiten dute.

SUPER H

Super H superheroi bat da, eta xede nagusi bat du: gaitz arraro eta onkologikoen ikerketan laguntzea eta egoera horretan dauden haur eta familiei laguntzea.

UME ALAIA

Adopzio familien elkartea. Helburu nagusia haurraren babesa da, adopzio ulertuz, familia bat izateko adingabeak duen eskubidea gisa. Familia eredu horren beharrak asetzea da xedea.

ASPAOIGI

Gipuzkoako haur minbizidunen guraso elkartea, minbizia duten adingabekoei eta bere familiei arreta osoa eskaintzea du xede, bai ospitalean eta bai kanpoan.

AMPGYL

Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkartea. Helburua beren seme-alaben errealitateak ezagutu, ulertu eta sorturiko diskriminazio egoeren kontra egitea da.

ireki gure leihoa



GAUR8

infraganti EIDER PEREZ



Eider Perez «Hitzetik hortzera»-ko aurkezleak saioaren sekretu batzuk kontatu dizkigu, baita bere zenbait ere. Kantuz betetako etxe batean hazi zen eta txikitatik egin du antzerkia. Gerora bertsoekin lotu ditu kantuak, baita antzerkia ere. Horrek txunditzen du, artean, diziplina ezberdinak nahasiz, jendartera begira sortzen denak.

Oso gustura» dabil Eider Perez (Trintxerpe, Pasaia, 1995) ETBko «Hitzetik hortzera»-n aurkezle. Bigarren denboraldia du. Iaz hasi zen, saioak 30 urte bete zitue-nean, hain zuzen.

Erreterian bizi da eta Villabonako Bertsozale Elkartearen etxea du lantoki. Bertan hartu gaitu, asteko saioa prestatzeko bileraren ondotik. Han daude, bertzeak bertze, Nerea Ibarzabal eta Amaia Goikoetxea lankideak. Astelehen hotz bat da, berogailua hondatua dago, baina umoretsu daude.

Alai, natural mintzatzen da Perez, patxadaz, pasioz. Fresko-tasuna eman dio saioari, baita arnasa ere. Urte batzuk egon ziren aurkezlerik gabe, *off*-eko ahotsarekin. Joan den urtean aurkezlearen figura berreskuratutuzten eta trintxerpetarra ari da betetzen paper hori.

EKOSISTEMA BILDU

Bertsolaritzaren ekosistemako gaiak lantzen dituzte. Adibidez, hizkuntza, hezkuntza eta gorputza. «Bertsolaritza esaten dugunean bertsolaria, bertsoa, oholtza etortzen zaizkigu burura. Programa hortaz osatuta dago, baita bertsolarien figuraz eta bertsoak ukitzen ahal di-tuen adar guztiez ere. Publikoa-rekin ere badaude atalak. Guztia barne hartzen saiatzen gara, aniztasuna biltzen. Hori da bertsolaritza, ekosistema osoa».

Adar horien bidez interesa pizten ahal zaio bertsozalea ez denari ere. «Bertsozale amorratua denak esango du: 'Jarri bertso gehiago!'. Baina orokorrean efektua bada gustagarriago egitea». Arinago ere bai, nahiz eta, argitu duenez, ez doazen eta ez duten joan nahi telebistaren

erritmo azkar horretara. «Programa lasai bat nahi dugu, baina arina, igande arratsaldetan gustura ikustekoa».

Guk gustura ikusten dugula erran diogu eta aunitz poztu da. «Jaso dugun *feedback*-a hori izan da. Bertsoa bada oso gozagarria. Baina sofatik, pantaila aurrean, gogoz ordubete ikus-tea sekulakoa da».

Denboraldia hasi aurretik gai zerrenda bat izaten dute: zein gauza aipatzen ahal dira bertsolaritzaren ekosisteman? Agendak ere baldintzatzen ditu, bertso saio mota batzuk egi-ten dira garai bakoitzean. Adibidez, Iruñeko Bertsoaroa udazkenean. «Zerrenda agendara egokitzen da, baita elkar-rrizketatu dezakegun jendeari ere. Gutxi gorabehera hiru hila-beteko ikuspegia daukagu, bai-na izenburuak dira soilik. Hila-betekoa hilabete hasieran antolatzen da, eta astekoa, aste-leheneko bileran».

Grabaketak egiteko astebete-ko tartea izaten dute. Orain, Ga-bonak datozenez, aurreratzen ari dira. Maialen Lujanbio elkar-rrizketatu dute, abenduan mo-nografiko bat eginen dutelako berari buruz. Tafallan ere izan dira Joxe Mari Esparzarekin jo-ten inguruan solasean. Urtarri-lean emango da saio hori.

IGANDE HONETAN, XILABA

Txapelketak ere ematen dituzte. Xilabako finalean egun oso-an egon ziren grabatzen. Partai-de batzuk eta bertako bertso eskoletan dabil-tzan gazte bat-zuk elkarriketatu zituzten. Biharko saioan emanen dute hori. Gipuzkoako txapelketan, «Hitzetik hortzera» lehen fina-laurrekoan sartu zen, Arrasaten. Hiru finalaurrekoak graba-tuko dituzte, baita finala ere.

«Bertsolaritzak hori du: Eus-kal Herri osoko, euskararen lu-

rralde osoko jardun bat da. Eta gu euskararen lurralde osora goaz. Ezkerraldetik hasi eta nafar Pirinioetara, Tuteratik Murrikura. Oso interesgarria da. Zazpi gara taldean: gidoilariak, kamerak, erredaktoreak... Batzuk gehiago ibiltzen dira bulego lanetan, baina denok, ez da inor libratzen, egiten dugu bidaia furgonetan, astero Euskal Herri osoan barna grabatzeko».

Iaz hasi zenetik astero leku batean egon da Eider Perez, jende ezberdinarekin, leku bakoitzeko errealitatearen zati handi bat ezagutzen.

JAKIN GOGO GUZTIAREKIN

Aurreiritzirik hautsi al duen galdetuta, erantzun digu bera ez dela aurreiritziekin joatekoa. «Dakidan gutxi horrekin joaten naiz, beti jakin-minez. Nire zeregina hori da, galdetzea. Nire jakin gogo guztiarekin joaten naiz eta hara iristen naizenean egiten dudana da ezagutu, benetan. Askok gustatzen zait hori. Oso prest nago elkarrizketatuak zer esango duen entzuteko. Jaso egin nahi dut, eta horrek ez du kentzen nire ekarpena egin nahi izatea. Ez noa aurreiritziekin, eta asko ikasten ari naiz».

Aurkezpenak eta elkarrizketak egiten ditu Eider Perezek. Nerea Ibarzabal Txakur Gorriak kolektiboko kideak, aldiz, gidoiak. «Nereak beti esaten dit: ‘Eider, egin zure erara’. Horren funtsa da nik gustura hitz egitea. Erredaktore modura ibiltzen naiz saioetara joaten, eta behar denean laguntzen. Ostiraletan, saioaren azpitituluak egiten ditut, gorrentzat eta nahi duen ororentzat».

“Hitzetik hortzera” Bertsozale Elkartearen adarretako bat da, ETBrekin elkarlanean aritzen dena, eta saioetan graba-



Eider Perez, herriz herriko bidaian jasotzen ari den altxorrak gordetzen dituen maletarekin. Atzean, collageak. Jon URBE | FOKU

tzen den guztia Bertsozale Elkartearentzako materiala da.

Saioak funtzio garrantzitsua betetzen du, batez ere irisgarritasunean. «Zabaltzeko bertsoak mekanismo asko ditu, plazan egiten da, jendaurrean. Telebis-tak irisgarritasuna ematen dio. ‘Saio honetara ezin izan nintzen joan eta ikusi nahi dut’. Bertsoa.eus atarian edo telebistan daukazu. Igandean etxean goxo egon nahi duen horrek ere bertsoak dauzka parean. Iristeko modu oso erraz bat da».

Bertso agenda mugagabea da eta horren lagin bat ematen dute. Irudi bat ere ematen diote bertsoari, bertze forma bat.

KANTUZALETASUNETIK

Trintxerpetarrak kontatu digu beti izan dela bertsozalea. «Nire etxean musika asko entzun da. Eskolan bertsoa ikasten hasi ginenean, 12 bat urterekin, ‘kanta hau bertso doinua da’ esaten nuen. Kanta asko nekizkien. Beti izan naiz oso kantuzalea. Eta konturatu nintzen banuela bertso munduan zale-tasun bat txikitari jaso nituen kanta guztietatik abiatuta».

Baditu lagunak bertsoa bertso eskolan jaso dutenak, txikitatik. Eider Perezek ez zuen aukera hori izan, ez zekien bertso eskola zer zen ere. Baina Euskal Herriko bertze jende bat ezagutzen hasi zen, literatur sariketa batzuen bidez. «Bertsoak egiten nituen, baina errimatu gabe. Literatura sariketa bat irabazi nuen errimatu gabeko bertso sorta batekin! Inozentzia eta gustu horrekin».

«Aitak beti esan izan dit: ‘Eider, zerbait nahi baduzu ipurdia mugitu behar duzu’. Eta Pasaia inguruan bilatzen saiatu nintzen. 17 urterekin irakasle bati aipatu nion. Bere bidez Lezoko bertso eskolan hasi nintzen. Plaza bitan kantatu dut

baina jakin gabe. Bertso udalekuetan hasi nintzen 17 urterekin eta geroztik begirale ibili naiz. Mundu hau deskubritu nuen, Txakur Gorriak-ekoak ezagutu nituen, jende asko».

TXIKITATIK ANTZERKIAN

Euskal Filologiako karrera ikasi zuen eta beti ibili da antzerkian, txiki-txikitatik. Antzezlanak eta poesia erreztatua egiten ditu. “Andre eta Jabe” emanaldiarekin dabil orain. Aurretik, Ane Garciarekin batera hiru urtez ibili zen “Autobiographical” ikuskizunarekin.

«Arte mundua gustatzen zait. Idazten ere ibiltzen naiz. Hitzen Uberan atarian kolaboratzen dut. Marraztea ere asko gustatzen zait, baina niretzat. Collageak egiteko zaletasuna izan dut nerabegarotik eta iazko ‘Hitzetik hortzera’-n horretan jarri nindutenean, oso pozik egiten nuen».

Iazko denboraldian collagearekin egiten zuten bertsoen arteko lotura; aurten, aldiz, maleta gorri batekin. Bertsoari ibilbide bat emateko aitzakia da maleta. «Herriz herri goaz, bakoitzean gonbidatuak dauzagu eta horiei eskatzen diegu beraien ekarpena egiteko maletara». Villabonako etxean dute dituzte bai collageak eta bai maleta. Bertan ikusi ditugu Urepeleko Karine Etxeberrik kantatutako Xalbadorren ber-



tsoen partiturak eta Abando Zierbenako haurrek bertsoa ikasteko erabiltzen duten liburuxka, bertzeak bertze. Sekulako oroitzapenen kutxa dute. Zazpigarren saioan nahiko bete dago eta 26.a iristen denean nola egonen den ikusteko goz dago aurkezlea.

Bertsoa tokian tokiko ekimenez zabaltzen da eta Perez trintxerpetarra denez bertan bertso eskola bat sortzeko proiektuan parte hartu du. «Ez

«Bertsolaritza Euskal Herri osoko, euskararen lurralde osoko jardun bat da. Eta gu euskararen lurralde osora goaz, Ezkerraldetik hasi eta nafar Pirinioetara, Tuteratik Mutrikura»

«Nire etxean musika asko entzun da. Konturatu nintzen banuela bertso zaletasun bat txikitan jaso nituen kanta guztietatik abiatuta. ‘Kanta hau bertso doinua da’ esaten nuen nirekiko»

da atera eskola bera, baina bada jendea interesatua. Ez du ematen bertso eskola ateratzeko adina, baina urtarrilean tailer batzuk egingo dira».

Perezen iritziz, bertsoa inguru bat da, euskaraz bizitzeko leku bat, lagunartean egoteko, hitza bera jolasteko eta lantzeko sekulako tresna. Belaunaldi arteko transmisiorako eta balioak jasotzeko ere baliagarria. «Arma bat da. Lehergarri bat. Alderdi asko ditu, oso interesgarriak gure jendartean».

DIZIPLINEN ARTEKO NAHASKETA

Antzerkiaren eta bertsolaritzaren artean parekotasunak ikusten ditu. Adibidez, bertsolariak sarri kantatu behar du pertsonaia bati buruz. Perezek antzerkian egiten duen sormen prozesua honelakoa da: «Ideia bat daukat buruan, hori irudi bihur dezaket, irudi hori nola jarriko dut oholtzan?

Agian urtebete pasatzen dut sormen prozesu horretan. Bertsotan, lantzeko eta entrentzeko hainbat modu daude, baina sormen prozesu bat izan daiteke mikrofonora hurbildu, gaia entzun eta bertsoa botatzeko bitarte hori. Ez da minutu bat ere pasatzen».

«Amona paperean jartzen bazaituzte, zure gorputza irudikatu behar duzu paper horretan. Eta hitzez ateratzen duzu. Hor dago antzekotasuna, sormen prozesua pasatzen da, eta gero gorpuztu eta azalerratu egiten da. Horrek txunditzen nau. Artean zer gauza ateratzen diren jendaurrera begira. Hor oso ondo konpon daitezke bertsolaritza, literatura... Giro bat da lotzen gaituen eta sekzionatu ezin dena». Perezi hagitz interesgarria iruditzen zaio zurrumbilo hori. •

Maider Iantzi Goienetxe



Garazi Goia - @GaraziGoia

Idazlea

Dena eta ezer ez

Harvey Weinsteinen sexu jazarpenei buruzko eskandalua argitara eman zuten «New York Times»-eko Jodi Kantor eta Megan Twohey kazetariak ematen zuten hitzaldi batera joateko gonbidapena jasotzeko zortea izan nuen duela bi aste.

Istorioa kalera-tu zutenetik bigarren urteurrena bete denean, “She said” izenburuko liburua aurkezteko erabili zuten Londreseko ekitaldia. Eskarmentu handiko kazetariak biak, Pulitzer saria irabazitakoak dira, baita beste hainbat aintzatespen ere. Kantorrek genero berdintasunaren alorrean lan ugari egin du eta Twohey, besteak beste, Trump presidentetzarako hautagai zenean, hainbat emakumek haren kontra egindako salaketan inguruko kontaketa lehenengoz ezagutzera eman zituenaren izen zena.

Wensteinen istorioa kaleratzeko erabakia hartu zuten arteko prozesu guztia biltzen da liburuan; kazetaritza liburu bat izan arren, ezin da ahaztu #metoo mugimendua mundu osoan zehar zabaltzeko istorio horrek izan zuen indarra eta ezarri zuen plataforma.

Bostehun bat pertsona egongo ginen auditorio formako gela hartan. Hunkigarria zen benetan haien testigantza zuzenean entzuteko aukera izatea. Eta, nardagarria jakitea datorren urtarrilean Wensteinen kasuaren inguruan hasiko den auzian zer gertatuko den aurreikustea oso zaila dela, eta guztiz posible dela Weinstein kargurik gabe ateratzea. Kazetarien hitzetan, oraindik ez omen dago garbi legeak eskatzen duen adina ebidentzia biltzeko gai izango ote diren. Behin baino gehiagotan errepikatu zuten bezala, historia osoan zehar gizonezkoek idatzi eta definitu dituzten marko juridikoan eta lege jakin batzuetan oinarritzko aldaketak ematen ez diren bitartean, behar baino zailtasun gehiago izango dituzte emakumeek.

Westeinen hiru biktima ere agertokian zeuden; haren idazkari izandako bi eta ekoizlearen enpresetako batean lana egiten zuten beste bat. Jasan-

dako sexu-erasoen ostean, hirurek konfidentzialtasun kontratua sinatu zuten isiltasunaren truke. Hiruetatik bik kontratu hori hautsi zuten duela bi urte, kazetariei ebidentzia gehiago ematen laguntzeko. Hirugarrenaren kasuan, aldiz, bi aste bakarrik pasatu ziren bere istorioa publiko egitea erabaki zuenetik. Sekretu hori bizitza guztian gainean eramatearen pisuaz aritu zen. Modu elokuyente batean kontatu zuen azken bi asteetan bizitzen ari zen esperientziaren kontradikzioa. Bere istorioa kalera ateratzeko liberazioa sentituko zuela uste zuen arren, barrenean zeramatzan lotsak eta zamak zuten pisuaz aritu zen eta haren bizitzan zuen eraginaz –bikotekidearen, seme-alaben erreakzioak kudeatu beharra adibidez–. Kontratua hausteagatik, legearen aurrean kriminalak dira hirurak eta oraindik ez dakite zein izango den horren eragina.

Han zeuden guztiak emakumearen eskubideen inguruko debata bultzada historiko bat ematear dira. Gela hartatik atera nintzen unetik oraindik presenteago daukat egiten duzun edozer gauzarekin ezberdintasun bat markatu ahal izateko beharra eta Kantor eta Twohey jelsia positiboz miren ditut.

Biktimetako batek nire alboan eserita zegoen batek egingandako galderari eman zion erantzuna ere iltzatuta gelditu zait. «Zer lortu duzue azken bi urteetan?». Erantzuna: «dena eta ezer ez». •



Weinsteinen kontrako epaiketari zer gertatuko den jakitea oso zaila da. Posible da kargurik gabe amaitzea. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. KUTXATEKA. FOTOCARTE FUNTSA

SOROLLA DONOSTIAN, RICARDO MARTINEN BEGIAN

1911. urteaz geroztik, Joaquin Sorolla margolariak zenbait uda eman zituen Donostian. Lehenago ere bertan margotzen egona zen, baita Euskal Herriko beste leku batzuetan ere, hala nola Biarritzen eta Zarautzen. Ia egunero Zumardiko Oriental kafean biltzen zen bere lagunekin. Tertulian, margolari valentziarrak bere arkatzak atera eta apunte batzuk egin ohi zituen, batzuetan mahai gainean. Hondartzan ere ikusten zen pintatzen, margo kaxa alboan, 1917ko udan egindako bat-bateko argazki honek erakusten duenez. Berarekin bere lagunak ageri dira, haien artean Madinabeitia doktorea. Argazkiaren egilea Ricardo Martin da, Donostiako Hondarribia kalean argazki denda bat zuena. Martinek ondo ezagutzen zuen Donostia eta egunegun ibiltzen zen hiriko erreferentzia guneeetan, hondartzetan, auzoetan, jaietan, udatiarrentzat antolatzen ziren ekitaldietan. Berezkotasunari eta senari jarraitzen zien argazkilaria zen, haren irudiek erakusten duten bezala.

#ExpolioGARAr kazetaritzarekin ere egingo diogu aurre

Prentsa askea lau hamarkadatan zehar: lehen orrialdeak
Historiaren jabe izan gaitezen

500 azal
1977-2019
Egin · Euskadi
Información · Gara



Elkartasun ekimen berezia
zor bidegabeari aurre egiteko

